

...eta Kitto!

2019-11-22

1089 zkia.



Badatoz koko-marruak!



Catalana Occidente Seguros

Eibarko Txikito, 8
Tel. 943 200 908
Mobila. 610 422 179
emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

EMILIO DE LOS TOYOS
Erreg. zkia. C046815351532K




- Erantzukizun zibila
- Autoak
- Bizitza eta Jubilazioa
- Osasun aseguruua
- Istripu banakako eta kolektiboak
- Arrisku anitzetarako: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa txikiak eta ertainak, PYMEak, Tailerrak

ASEGURUAK



Tratamendu-arlo guztietan
ISO 9001:2015 ziurtagiria lortu duen
EUSKADIKO LEHENENGO KLINIKA DA



DERMITEK
Uribitarte Pasealekua, 11-12
Isozaki Dorreak
48001 BILBO

DERMITEK KLINIKA: Barize lodiak kirurgiarik gabe ken daitezke, ebakuntza ostekorik gabe eta saio bakarrean

MINA, ASTUNTASUNA, AZKURA ETA ZAIN HANPATUAK DIRA, BESTEAK BESTE, BARIZE LODIAK DITUZTENEN SINTOMETAKO BATZUK. Bilboko Dermitek Klinikako Raquel Lambea doktoreak azalduko digu nola laguntzen dieten Dermiteken pertsona horiei barizerik gabe bizitzen.

– Zain barneko laserra barizeak kentzeko behin betiko metodoa al da?

Galdera horri gure esperientziaren benetako datuen bidez erantzungo diot: zain barneko laserraren birgaixotze-tasa % 0,6koa da tratamendua bukatu eta hurrengo urtean, hots, oso urrun dago ebakuntza-gela batean operatutako barizeen % 20ko birgaixotze-tasatik eta aparrez tratatutako barizeen % 40ko tasatik.

2010ean hasi ginen zain barneko laserra aplikatzen eta Dermitek klinikan dihardugunok ziurtzat jotzen dugu tratamendu horren eraginkortasuna; hortaz, edozein arrazoi dela eta, lehenengo hamabi hilabeteetan birgaixotzerik gertatuz gero, tratamendua doan emango genuke berriro.

– Zergatik aukeratu du teknika hori Dermitekek?

Zain barneko laser mota asko dago. Eta horietako batzuk probatu ondoren, Dermiteken 1.320 eta 1.470 nanometroko laserrak aukeratu ditugu lan egiteko, horien emaitzak bikainak direlako eta tratamenduaren ondorengo garaia aparta delako.

Zain barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzen dute nazioarteko mailan ezaugarri hauek dituelako:

- Birgaixotze-tasa txikia: lehenago esan dudan bezala, % 0,6koa, Dermiteken tratatu diren 1.500 kasuen artean egindako azterlan baten arabera. Kasuen eboluzioa zaindu ohi dugu lehen urtean, emaitza egiaztatu eta bermatzeko.
- Arrisku gutxiago: teknika ez erasokorra da, hots, kirurgia, ebaki, puntu eta ebakuntza ostekorik gabea.

Anestesia lokala bakarrik erabiltzen da eta saio berean bi zangoetako safena benak trata ditzakegu.

- Tratamendu ondoko deserosotasun gutxiago: pazienteak oinez aterako da klinikatik eta konpresio arineko galtzerdi bat eraman beharko du eta egunean bitan ibili bi astetan zehar, besterik ez.
- Eta berehala hasiko da ohiko bizimodu izaten: gure pazienteek garrantzi handia ematen diote horri.

argazkiak ikusi beharko ditugu, historia klinikoa eta gutxi gorabeherako aurrekontua egiteko.

Hurrengo kontsultan, azaleko zein sakoneko zain-sistemaren mapa egingo dugu, tratamenduaren egunean mediku-taldeari zehaztasun osoz gidatzeko.

Ordubetean eta saio bakarrean burutzen dugu tratamendua. Laserrak, oso zuntz mehe baten bidez, zain gaixoaren barrutik eragiten du eta hori erabat itxi eta



Zertan datza tratamendua?

Pazientea eta medikua elkartzen diren lehenengo aldian, informazioa ematen dugu doan, hots, diagnostikoa egiten dugu doppler ekografia bidez, arazoa non dagoen zehazteko eta tratamendua nola-koa izango den azaltzeko.

Lehenengo kontsulta hori telefonoz, Skype bidez edo gure web-orriko inprimakia betez ere egin daiteke, nahi izanez gero. Aldez aurretik pazientearen

desagerrarazten du. Prozesu hori ekografia baten bidez kontrolatzen dugu eta anestesia lokala bakarrik erabiltzen dugu.

Bukatutakoan, pazienteak oinez aterako da klinikatik ordu-erdiz ibiltzera, zangoan konpresio-galtzerdi bat daramala. Ohiko jarduerari berehala ekin diezaioke berriro, lanari ere. Bi egun, bi hilabete eta 9-12 hilabete igaro ondoren ikusiko dugu paziente berritua klinikan, barizea berritua agertu ez dela ziurtatzeko.



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzio@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Fernando Retolaza

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-maillez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MELA-MELA.- Blai eginda. "Egin dittuen truxalakiñ mela-mela eginda heldu gara etxera".

MEMELA/MELELO.- Ganorabakoa, leloa, mozoloa. Lehenengo emakumea eta bigarrena gizonezkoa. "Horrekin jai dago, bizi guztian memelua izango da".

astean esanak

"Azken aldian egindako ikerketa batek erakutsi du emakumezko baten garuna adin bereko gizonezko batena baino ia lau urte (3'8) gazteagoa dela. Baina, beste ikerketa batek erakutsi duenez, emakumezkoen garunari gehiago erasotzen dio alzheimerak: 100 gaixoeatetik, 60 emakumezkoak dira. Horrek badu bere zergatia: garunaren zahartzea eta alzheimerra prozesu desberdinak dira: zahartzearekin ez dira neuronak galtzen, baizik euren arteko loturak. Alzheimerarekin, ordea, neuronak hiltzen dira"

(GURUTZ LINAZASORO, SENDAGILEA)

"Euskara batua, gehienbat, Gipuzkoako hizkeran edo, zehatzago esateko, Beterriko hizkeran oinarritu denez, hizkera horixe ari da zabalzen eta indartzen. Hala ere, baten bat harrituko bada ere, Gipuzkoako euskara da gutxienez ezagutzen dugunetakoa: Tolosatik hegoaldera dauden hizkerak (Alegi, Amezketa, Lizartza, Orea...) erabat ezezagunak dira; Urolaldeko gehienak ere bai (Errezil, Aizarnazabal, Zumaia...). Nik neuk ere badauk oraindik zer ikasia. Araba, Bizkaia eta Lapurdi zertxobait ezagutu ditut, baina gainerako herrialdeetan hutsune handiak ditut"

(KOLDO ZUAZO, HIZKUNTZALARIA)

"Hobeto bizitzea ez da gehiago bizitzea, kalitate handiagoarekin bizitzea baizik: hori dio etikak. Bitxia da itxaropenik ez duen animalia baten bizitzarekin amaitzeko aukera izatea eta ez, aldiz, hori eskatzen duen pertsona batekoarekin. Sufrimenduaren aurka borrokatu behar dugu. Medikina ez zen sortu gu hilezkor izateko, mina arintzeko baizik. Gurean, biztanlegoaren %70etik gora dago eutanasia zigortzearen aurka, ikusten dutelako maitatzen duten senidearekiko maitasun-ekimena dela, gehiago sufritu ez dezan, batez ere gaixoak berak horrela erabaki bazuen gaixotu aurretik. Horren aurka, zergatik?"

(JAVIER SADABA, FILOSOFIA)

UniEncounter, 28 ordu jarraixan informatikaren inguruan

Uni Eibar-Ermua BHIko Informatika saillak oin dala hamairu urte antolatzaren daben UniEncounter ekimena otsaillaren 25ian hasi eta martxuaren 8xan amaittuko da aurten. Teknologixa barrixerri lotutako jardunaldixak osatzen dabe UniEncounter, eta ekitaldi gehixenak -hitzaldi, taillar eta sareko joko-lehiaketak- izaera tekniko eta dibulgatzaillia izaten dabe, alderdi ludikua ahaztu barik. Zentzu horretan, UniEncounter ekimenaren barruan, aurten be, "LAN Party kedada" egingo dabe martxuaren 1ian eta 2xan, Hezkuntza Esparruan. Aurten be 28 ordutan jarraixan jardungo dabe: martxuaren 1ian 16:00etan hasiko dira eta



zapatuan 20:00etan amaittuko dabe topaketia. Hainbat hitzaldi 'serixo' eskuruko dira, baiña eSport izenekuekin zein mahai jokuekin tartekatuko dittue. Ekitaldi

di irekixak dira eta parte hartzeko nahikua da uniencounter@hotmail.com helbidera idaztia. Informaziño gehixagorako begiratu uniencounter.uni.eus helbidian.



Untzagako Jubilau Etxia txiki geratu zan Errebal Plataformakuak deittutako billerara gerturatu zan jende mordua hartzeko.

Errebalgo obren inguruko "gardentasuna" eskatzen dabe Plataformakuak

Errebal Plataformakuak deittuta, martitzenian Untzagako jubilau etxian egindako billeriak jende morduren interesa piztu eban eta, Plataformako ordezkariak diñuezen, 130 bat lagun alkartu ziran, azkenian Errebalen zer egingo daben jakin nahixan. Billeran, bestiak beste, Errebalgo biharren inguruko gorabehera guztiak ekarri zittuen gogora eta, "20 urte burutu bete bako promesekin" pasau ondoren, Udalari gardentasuna eta garbi jokatzeko eskatu detse: "Jendaurreko billerak hillero, aurreikusittako epien, gastuaren eta beste kontuen inguruan esandakuak betetzen daben ala ez jakiteko benetako datuak eskuratu ahal izateko". Eta, horrekin batera, herrixak hartutako erabagixa errespetatzia be eskatu dabe, "hau da, Merkato Plazari zein basarritarren postueri eustia".

Euren eskaerak babesten dittuen 2.521 siñadura entregau dittue Egogaingo bihargiñak

Egogain Gerontologia Zentruko bihargiñak Donostira juan ziran astelehenian eta, oinguan, suhiltzailliak lagun euki zittuen mobilizaziñuetan. Izan be, kolektibo bixak dihardue euren lan baldintzen alde borrokian eta euren eskaerak Markel Olano diputatu nagusixari helarazten ahalegindu ziran, "baiña azkenian Taba-



kalerara beste atetik sartu da eta Ertzaintzak kalera zetezko agindua emon zeskun". Edozelan be, Egogaingo bihargiñen ordezkariak euren eskaerak babesteko batu dittuen 2.521 siñadurak Elene Basagoitia Gizarte Zerbitzuetako buruari entregatzia lortu eben.



Eguaztenian hasi zan azokia.
Aurten be euskeria bultzatzen
jardun dabe ...eta kitto!-tik.



Gaur da neguko merkealdi azokaren azken eguna

Eguazten goizian inaugurau eben Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Eibarko Udalaren laguntzarekin, antolatzen daben neguko merkealdixen azokia Toribio Etxebarria kalia. Oinguan 25 establezimendu animau dira parte hartzera: 17 dendarik kalera etara dittue eskintza berezixak eta gaiñerakuak, barriz, dendan bertan eskinduko dittue prezixo berezixak. Gaur 20:00ak arte egongo da zabalik azokia eta, horren harira, gaur arratsaldian kale-animaziñua egongo da: 18:00etatik 20:00etara Afro Sound System taldekuak zuzeneko musikia eskintzen eta buruhaundixekin azoka inguruak girotzen ibilliko dira.

Euskeraz Primeran!

Bestalde, ...eta kitto! Euskara Elkarateak "Euskeraz Primeran!" kanpaiñarekin hartu dau parte azokan, "merkataritza eta ostalaritzan euskeriaren erabilleria areagotu nahixan". Euren mahaira gerturatu diraner Euskaraldian erabilli ziran hiru roletako batekin (ahobizi, belarriprest eta bihotzgoxo) identifikatzeko eskatu detse eta, trukian, erosketak egittera doiazenerako karteratxua oparitu detse. Gaiñera, parte hartzera animau diran guztien artian Eibar Merkataritza Gune Irekiak emondako 100 euroko erosketa-txartela zozketatu dabe gaur eguardixan.

autuan

PSE-EEKO HAUTAGAITZA

Udal Hauteskundietarako Eibarko alderdi sozialistak aurkeztuko daben zerrendan, hautagaietako bat Esther Velasco izango da. Ekingune alkarteko sortzaillietako bat eta lehen presidentia ez eze, HRE Hidraulic enpresako gerente eta Gesguneko zuzendari karguak betetzen ditu. Hautagai independente modura aurkeztuko dabe.



EKINTZAILLIENDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Debegesak kudeatuko ditu Debabarrenian ekintzailleri zuzendutako Lanbideren diru-laguntzak. Eskaeriak aurkezteko epia astelehenian hasi eta martxuaren 1ian itxiko da. Eskeriak aurkezteko orriak eta informaziño gehixago debegesa.eus helbidian eskuratu leikez eta, bestela, 943 82 01 10 telefonora deittu edo ekintzaile@debegesa.eus helbidera idatzi.



ASTEKLIMA

Euskadiko Klima Aldaketaren Astea
Semana del Cambio Climático de Euskadi



Erakusketa

"GURE MUNDUA
ERALDATZEKO 17 HELBURU"

martxoaren 6tik 27ra (astelehenetan izan ezik)
18:30/20:30 Portalean
Inaugurazioa martxoaren 6an, 19:00etan
Unesco Etxea

Antzerkia

"O ME ATIENDE YA,
O ME VOY"

martxoaren 10ean 18:30 Portalean (45 min.)
Heldu, gazte eta lagundutako adingabeentzat
gazteleraz (doan)

Hitzaldia

"KLIMA ALDAKETAREN
INPAKTUAK EUSKAL HERRIAN"

martxoaren 7an 18:30 Portalean (60 min.)
Hizlaria: Elisa Sainz de Murieta (Basque Centre
for Climate Change – BC3) euskeraz

Dokumentala

"UNA VERDAD MUY
INCOMODA: AHORA O NUNCA"

martxoaren 12an 19:00 Coliseoan (99 min.)
Gazteleraz (doan)



Errepidera jausittako lurra garbitzeko eskatu detse Bolinguako jabieri

Aranen gertatutako luperixaren ondorioz errepidera jausittako lurra garbitzeko gaur arteko epia emon detsa Udalak Bolinguako lurren jabieri. Horren barri emoteko asmuarekin martitzenian billeria egin eben eta errepidia atzera be zabaldu ahal izateko garbitzeko eskatu zetsen lurren jabieri, terrenuak pribauak izaterakuan Udalak ezin dabelako eskurik sartu. Edozelan be, jabiak lurra errepidetik garbitzeko arduria bere gain hartu ezian, Udalak garbittuko dau bidia eta, hala gertatuz gero, biharrak kostatzen dabena jabiak pagau biharko dittu.

Jubilauak ez dabe amore emoten

Astero lez, astelehen honetan be pensio duiñen aldeko alkarretaratzia egin eben jubilauak Untzagan eta, amaieran irakorritako adierazpenaren arabera, Bizkaiko plataformetako ordezkariarekin martxuaren 5ian dira biltzekuak, aurrera begira dittuen asmuen barri jasotzeko asmuarekin. Horrekin batera, "pensio publikuen kalterako" dan "Austriako motxila" dalako neurrixaren kontrako jarrera argixa erakutsi eben eibartarrak. Aittatutako neurrixak bihargiñaren hilleroko soldata gordiñaren %1'53 kapitalizaziñorako fondo batera sartzia planteatzen dau eta, bestiak beste, kaleratzia gertatuz gero indemnizaziña txikixagua izatia eragiten dabela salatu nahi dabe pentsiodunak. Bestalde, apirillerako hauteskundiak deittu dittuen arren, "pensioak blindau barik" segitzen dabela ekarri eben gogora.



asteko
17
 datua

enpresa berri, 61 lanposturekin sortzen lagundu eben 2018xan Debegean. Danera 97 lagun jua jakozen enpresa sortzeko informaziño billa eta hórretako 22rekin bideragarritasun plana landu eben.

Funeraria·Ehorztetxe
Mugica

EIBAR	ELGOIBAR
	
Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



PUBLI RESA
objeto publicitario

publiresa@publiresa.com

Armagin, 3-5 beheak

-  merchandising
-  serigrafia
-  lanerako erropa

943 701 497 / 615 799 419

www.etakitto.eus

WEB

herriko **ALBISTEAK**

argazki **BILDUMAK**

BIDEOK

AGENDA

KIROL-agenda

eta **emaitzak**

KOMUNITATEA

Fernando Retolaza



Aratostiak gaiñian dakaguz eta Eibarren koko-marruak be prest dagoz herriko basarri-auzo eta kaliak hartzeko. Bixar goixian Otaola-Kiñarraga auzoko basarrietara gerturatuko dira dantzan, kantuan eta eskian eta, handik herrira jaitsita, arratsaldian erdiguneko kale nagusiñak hartuko dittue.

KOKO-DANTZAK Otaola-Kiñarraga auzora bisitan juango dira BIXAR

URTEROKO MARTXAN, BIXAR BE GOIZEKO 08:30-XETAN HASIKO DIRA KOKO-DANTZAK, MERKATU PLAZAN BATZEN DIRAN BASARRITTARREN AURRIAN. Handik bitan banatuta ibilliko dira basarririk basarri, eguardira arte. Kezka dantza taldekuak azaldu dabenez, "talde batek Sautxitik gora Iragorri basarri-ra joko dau, eta ondoren Azitaiñen Loiola, Egiguren, Ixxue eta Txopen bisitatuko dittu. Herrixaren beste muturrera juango dira gero, Otaolaerdikoa eta Ipuruara. Bittartian, beste taldia Txontatik gora abiatuko da, Mertxete, Iraegi, Aretabeletxe, Iraegitxiki eta Unbe aldera. Eta talde bixak alkarrekin Altamirabehekoa, Katina eta Bolinguan amaittuko dabe goizeko koko-eskia". 2015ian ibilli ziran azkenekoz basarri inguru horretan, edur eta guzti.

Arratsaldian, barriz, kalejiran ibilliko dira koko-dantzak, Eibarko erdiguneko kalietan, Mauxitxa txarangarekin batera: "Anbulatorio parian 19:00etan alkartu eta Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga, Calbeton eta Plaza Barrian ibilliko gara, festan eta dantzan. Koko-dantzarixak, Aixerixak, Masustak, Sasikartia, Kattalin eta Manuela, Petra eta Maria, Don Eusebio, Batista kojua, Amabirjiña, Mamarruak, Burburixuak, Martin perratzailia, Koko-nagusixa, Juanapagua, musikuak eta Hartza prest dagoz, eta zeuek?".



laz bezperako elurra lagun izan zuten goizeko baserriz-baserriko irteeran.



Fernando Retolaza

Brasildik Eibarrera, josi eta josi



Vania Fariak Bittor Sarasketa kalean du bere jantzigintza-negozioa. Ekhi Belar

Vania Fariak Brasilen eman zituen lehen puntadak eta Eibarren emango ditu azkenak, berak nahi duen moduan laster jubilatzen bada. Urte asko daramatza bere jaioterritik kanpo bizitzen eta *saudadea* dauka (sentimenduen nahasketa, galera, falta, distantzia eta maitasuna azaltzeko portugesezko berba). Pozik bizi da Eibarren, baina hanka bat Brasilen eta bestea Eibarren eduki nahi ditu. Jostorratza laga eta urte guztian udako jantzia ipintzea gustatuko litzaioke.

Etxeko bizitza

Rio de Janeiro eta Sao Paulo artean da goen Itajuba hirian jaio zen Vania Faria, Minas Gerais estatuan. 90.000 biztanle inguru ditu, Brasil hegoaldeko laugarren hiri handiena da eta mendiz inguratuta dago, "Eibar bezala". Hiriaren erdialdean bizi izan zen zazpi anai-arrebekin; baina -esan digunez- bere bizimoduak ez zuen hemengoarekin antz handirik. "Hemen jendeak kalean egin ohi du bizimodua. Gu, ordea, kontrolatuago bizi ginen. Eskolatik irteetan ordu bat jartzen ziguten etxera itzultzeko, dutxatu egiten ginen eta lotara".

Mundua ezagutzeko gogoia

Moda kontuak betidanik gustatu izan zaizkio eta horretara bideratu zituen ikas-

ketak. Sao Paulon egin zituen unibertsitate-ikasketak eta, ondoren, beste gradu bat Belo Horizonten. Jantzigintza izan zuen lanbide Brasilen eta ondo zegoen, baina, mundua ezagutzeko gogoia zuenez bidaiaitzeko erabakia hartu zuen. Portugal, Madril eta Bilbon ibili zen, eta Bizkaiko hiriburuko moda-eskola batean egon zen. "Azkenean, Eibarren amaitu nuen". Eibartar batekin maitemindu eta gurera etorri zen.

Eibar Itajubako auzoa

"Eibarrera iritsi nintzenean nire hiriko auzo bat bezalakoa zela iruditu zitzaidan", dio Vaniak barrez. "Kale bi bakarrik zituela ematen zuen, nahiko txikia zela, baina oso eroso da eta jendeak oso ondo hartu ninduen". Gaztelerarekin ez zen oso ondo moldatzen, baina jantzigintza-negozioa edukita tratu handia izan du eibartarrekin eta "oso zintzoak" dira bere ustez. "Esker

onoko berbak besterik ez ditut eibartarrentzat".

Urte osoa udan pasatzeko zain

Estaziño kaleko etxebizitza bateko lehenengo solairuan zabaldu zuen jantzigintza-negozioa. "30 metro karratu zituen eta ia urte bi egon nintzen han". Tokia txiki geratu zitzaion eta Bittor Sarasketa kalean lokala hartu zuen. Hogei urte daramatza lokal horretan eta jubiliazioa noiz helduko zain dago. "Jubilatzen naizenean negu aldean Brasilerara joatea da nire asmoa, han bero egiten duelako. Uda giroan pasatzea nahiko nuke urte osoa".

Brasil bihotzean

Brasiletik itzuli berri da Vania. Hiru hilabete egin ditu han, "hemengo neguari zati bat jan diot", eta animoak kargatuta bueltatu da Eibarrera. Feijoada, saiheskia labean eta bestelako jaki brasildarrak egiteko ohiturari eusten dio Eibarren, baina bihotza Brasilen dauka. "Nire semea eta iloba han bizi dira, anai-arrebak ere, eta gauza askoren hutsunea sentitzen dut". Neba bat eta iloba bisitan etorri zaizkio inoiz, eta ahizpa bat da laster etortzekoa. Bestela, bera joaten da Brasilerara. "Mendia ez badao Mahomarengana, Mahoma doa mendira".

"Costume de casa
vai à praça"

"Etxeko ohiturak
plazara doaz"

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac 677 51 24 62
ego.luz@hotmail.com 630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnua. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac



Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922



ARKITEKTOAK

olatz etxeberrla martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberrla

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 30
AJT Zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea esk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztietako
gARBiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnua. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D



PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnua. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

“Lexicón del castellano eibarrés” liburuxka kaleratu duela aprobetxatuta, gure orriotara inoiz ekarri ez dugun Castor Garate elkarrizketatzeko aprobetxatu dugu. Bide, kanal eta portu ingeniaria Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika, Garraio eta Turismo kontseilaria izan zen Garaikoetxearekin eta gaur egun Revista Eibar-en kolaboratzen du. Badira urte batzuk Bilbora joan zela bizitzera, baina astero egiten du osteratxoa bere jaioterrira, “betiko lagunekin egoteko”. Kexu da “gure arazoak baten batek konpondu behar dituela” uste dugulako eta Eibarren ere “sasoi bateko espiritu ekintzailea” galdu delakoan dago. AEB-tako bidea goraiatzeko du, “kolektibismoa” errefusatzen duen moduan: “Liberalagoak izan behar gara; ez hain gorriak”.

CASTOR GARATE (Eusko Jaurlaritzako kontseilari-ohia):



“Gobernu Mundiala behar dugu. Gerra nuklearrari diot nik beldurra”

– *Zelan gogoratzen duzu kontseilari izan zinen sasoi? Zeintzuk ziren orduko erronka nagusiak?*

Illusio handiarekin sartu nintzen, zalantza barrik. Ingeniari bulegoa nuen orduan Eibarren, GEIG izenekoa, 1972an lanean hasita. Titularra neu nintzen, lau behargin edo kolaboratzaillarekin, euretako bat bazkidea. 1984an, bulego hori izanik, Herrilan kontseilaria izatea ez nuen bateragarri ikusten. Orduan bulegoa itxi, ordaindu beharrekoa ordaindu eta igerilekura egin nuen jauzi, buruz. Pentsatzen nuen Eusko Jaurlaritzaren sailburu izatea ohore handia zela niretzat, aukera bakarra, eta ezin nuela baztertu.

– *Zeintzuk izan ziren orduko erronka nagusiak?*

Gure denboran, bakearen ikuspegitik, bazirudien gauzak hobetzen zihoazela; baina, noizean behin, ETArek atentatu bat izaten zen eta atzera egiten genuen berriro ere. Arazo horrekin tokatu zitzaigun lan egitea; ez zen erraza, benetan.

Bestalde, orduantxe eman genituen Bilboko Metroaren lehenengo urratsak, baina lege ikuspegitik bakarrik. Eskuduntzak norenak ziren aztertzen: zein izan behar zuen Madrilgo rola eta zeintzuk Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiarenak.

Errepide Plan Orokorra izan zen garrantziko beste gai bat. Nik kuadrilateroa ikusten nuen lau hiriburuen artean eta bi diagonal: Maltzaga-Gasteiz eta Durango-Beasain. Bilbo eta Donostiaren artean tren berria beharrezkoa iruditu zitzaidan guztiz, eta ikerketa edo aurreproiektua enkargatu genion ingeniari handi bati. La Paloma gas naturala sortzeko instalazioaren baimena egitea, Ingurugiro ikuspegitik, neri tokatu zitzaidan, eta egin genuen. Guzti horrez gain, Estatu-tuko eskumenak eskatzen hasi ginen: turismoa, urak, portuak etabar.

Arazo handiena, baina, gobernuaren eta alderdiaren artean zegoen eztabaida izan zen; hura bai istillua. Lurralde Historikoen Legearen interpretazio ezberdinari bota zie-

ten errua, Diputazioen eta Jaurlaritzaren eskumenak zeintzuk ziren bat ez ezortzeari; baina, nire ustetan, zein zen lehenago, Jaurlaritzaren edo alderdiaren, hor zegoen kokoa. Bostere kontua, beste hitz batzuekin esateko.

Orduko giroa ez zen onena, egia esateko. Nik entzundakoa da: Garaikoetxeak amaitzen du alderdiarekin edo alderdiak berearekin. Eta bigarrena gertatu zen. Bedertzi hilabete ondoren, kalera! 1985aren martxoan. Garaikoetxeak izendatu ninduen, nik ere gobernutik irten beharko nuela pentsatu nuen, eta horrela izan zen.

– *Zelan sartu zinen politikan?*

Eibarren, SCR Arratek 1.100 bazkide zituela, neri tokatu zitzaidan presidente izatea 1971tik 1973ra arte. Batzorde asko zeuden: hitzaldiak, zinea, antzerkia... Euskal Jaia guk antolatzen genuen: ez zen aktibitate politikoa, baina bestela ezin zen egin.

1980an EAJ-k deitu zidan lehenengo Parlamenturako hautagai izateko. Nire jardun profesionalarekin konpatiblea zen eta inte-

resgarritzat jo nuen. Gipuzkoako zerrendan zazpigarren nintzen eta bederatzi atera genituen. Lau urte interesgarri izan ziren 1984ra artekoak. 1985ean, gobernutik irteztzean, EAJ-k Arabako Errepide eta Ingurugiroko zuzendari nagusia izateko proposatu ninduen. Kargu politikoa izanik, nere profesioarekin nahiko lotuta zegoen. 1987an kargu hori laga nuen eta berriro eutsi nion aktibitate profesionalari. Kasu horretan egoitza soziala Bilbon zuen Ekone eraikuntza enpresen talde batean. Eta 1988an Bilbora joan nintzen bizitzera.

Jendeak uste zuen ni EAn sartu nintzela. Baina ez da egia: inoiz ez naiz EAko kide izan. EAJ-n jarraitzen dut gaur egun ere.

– Zure ibilbide politikoari erreparatuz, zelako balantzea egiten duzu?

Ez da erraza izan. Behin baino gehiagotan galdetu diot neure buruari: politikan sartu ez bazina, zertan aldatuko zen zure egoera? Zalantza barik, politikan sartzeak badu eraginik: karrera profesionala baztertzeko duzu, guztiz gelditzeraino. Baina, beste aldetik, politikan jarduteak harreman arloa zabaltzen dizu: bitzita aberatsagoa bihurtzeraino. Nahiz eta ekonomikoki, agian, gutxiago irabazi.

– Zelan ikusten dituzu hemengo, Espainiako eta munduko gaur egungo egoera politikoa?

Galdera ederra. Ez dakit zahartzen ari naitzelako den... baina ez ditut arlo horiek larri ondo ikusten, bat bera ere ez.

Euskal Herrian dexente gaude ekonomiararen arloan: Jauriaritzak nahiko ondo sostengatzen ditu Osakidetza, garraioak, kultura... baina Hezkuntza arloa ez dut hain ondo ikusten. Unibertsitatean endogamia edo halakoren bat nabaritzen dut. Osasun arloan aginteak bere lana egiten duen moduan, Hezkuntzan ez dut halakorik ikusten: hori barruan talde kolektibistek dute boterea. Eta unibertsitateak erraza du hobetzeko bidea: Estatu Batuetako unibertsitatea aztertu eta kopiatu. Fakultate bakoitzean kudeatzailea ipini, aurrekontu egokiarekin eta lan egiteko askatasunaz. Baina horrek topo egiten du kolektibisten ideologiarekin... Pena da hainbeste ideologia tartean sartzea ezer ez lortzeko, batzuen seguritatea baizik.

EAJ eta PSE alderdi sozialdemokratikak izanda ere, instituzioetan ideologia kolektibista (agian, baita antisistema ere) duen jende asko dago sartuta, nire ustetan. Eskærak gero eta handiagoak dira; arlo guztietan, gainera. Gastu publikoa igo eta igo, zergak zer esan... eta zor publiko handiarekin. Giro hori ez da egokiena inbertsioak egiteko. Eta modu horretan enplegua ez da sortuko, edo gutxi eta kalitate eskasekoa izango da.



Espainiako egoerari begira, Kataluniako arazoa da pilpilean dagoena. Jende mordo aspertuta zegoen PP eta PSOEren politikarekin, eta Vox azaldu da, aurrekoari su pixka bat gehitzeko. Espainian ere, gastu publikoa gero eta handiagoa da, zorra izugarri hazi da eta ez da ikusten nola ordainduko den.

Emigrazioaren kontua ere ez da ondo ikusten. Filosofoek, Aita Francisco barne, ikuspegi kualitatibotik aztertzen dute asuntua. Inmigrazioa onartuta ere, ados, arazoa kuantitatiboa da. Zenbat eta zein epean. 50.000 urtean eta 10 urteko epean, ondo. Baina 5 milioi bost urtetan gehiegi iruditzen zait. Gobernuak zenbakiak aztertu beharko lituzke eta gero herriari azaldu, baina gauzak kontrol barik doaz. Eta kontrola behar da! Gobernuak buenisimoaren bidetik jotzen du, baina ez da gauza gaia kontrolatzeko. Betiko moduan, gezurra gezurraren atzetik.

Ekonomia arloan Espainia ez dut txarto ikusten, gastu publikoa kontrolatzen baldin bada. Baina gaur egungo gobernu ez dirudi gastua kontrolatzeko gauza denik, edo nahi duenik.

Mundu mailan, zer esan... Orain dela 20 urte galdera bera egin zidaten, Eusko Jauriaritzaren historia azaltzeko liburu bat egiteko. Orduko nire erantzuna? Arazo larriena moralik eza da. Morala ez da eliza-kontua, joko-arauena baizik. Ez baditugu arauak errespetatzen, jai dago; ekonomiak ez du funtzionatuko. Makina bat saltzen badizut, eta zuk ez baduzu ordaintzen, ez duzulako nahi, ez dago ekonomikoki, gauzak pikutara doaz. Arauak beharrezkoak dira, eta baita bakoitzaren erantzunkizuna ere, eta antisistemek arauak apurtu nahi dituzte. Arazo handia da hori!

Mundu mailako beste arazo bat ingurugiroa da. Badirudi gero eta okerrago dagoela. Nik aspalditik diot Gobernu Mundiala behar dugula. Revista Eibar-en horri buruz artikulua bat baino gehiago kaleratu dugu. Arma nuklearren kontrola eta ingurugiroa arduratuta naukate. Atmosferak ez du mugarik, ozeanoek ezta... Orduan... agintea behar dogu.

Albert Einstein lehenengoetakoa izan zen ideia hori azaltzen eta, gobernu hori tirania bilakatzeko beldurrik ez zuen galdetu zioe-

nean, honakoa erantzun zuen: Bai, baina beldur handiagoa ematen dit gerra nuklearrak.

– Ingeniaria izanda, zelan ikusten duzu gaur egungo Eibar? Zertan aldatu beharko zen?

1960. hamarkadan honakoa kontatu zidaten: Moskuko Unibertsitatean hirigintza ikasten zutenei Eibarko urbanismoa ipintzen zietela egin behar ez denaren eredu moduan. Ez dakit egia ala gezurra izango den, baina eskaintzen du pentsatzeko tartea. Ego ibaia estalita, kale estuak eta etxeak ia lur guztia betetzen... Eskerrak mendia gertu dugula... Baina gure herria da, eta jendeak ez dauka preziorik.

Galdera horri erantzuteko, Plan Nagusi berri bat egin beharko zen: Gainera, ni ez naiz horretan aditua, baina ausartuko naiz: Eibarko kaskoa esponjatu beharko litzateke, espazio libreak handitzeko. Horretarako, eraikin asko bota beharko lirateke. Adibide moduan, Arragueta, Grabadores eta Estaziño kalearen artean dagoen espazioa. Agian, Bidebarrietaraino. Hor ondo aztertu zein etxeri eutsi eta zeintzuk bota. Behar den eraikigarritasuna altura bitartez lortu daiteke. Orain etxebizitza zaharren prezioa ez da garestia izango.

Premiazkoa ikusten dut, bestalde, Ermuko eta Mallabiko estoldeetako kolektoreak egitearena. Lotsa ematen du Ego Gainen erreka aske ikustea eta kolektoreak egin barik. Hainbeste gastu publiko eta estoldeetarako dirurik ez.

Beste ikuspegi batetik, lurraren erabilketa edo baliatzeak abiatuta, Eibarren betidanik lur garrantzitsuenak industria eta etxebizitzetarako izan dira. Arlo horretan ikusten dut badagoela aldatzeko modua: Hegoalde-ra begira dauden lurretan, hau da, Arrateballetik Amañaraino, badago franja bat oso eguzkitsua, edo eguzkira begira behintzat. Lur horietan mahatsa ekoiztea egokia izango zela uste dut. Lurra buztina eta areniskaren nahastea da, oso egokia mahatsa lantzeko. Eta baita lurraren malda ere eguzkiaren izpiak hartzeko. Ez dugu ahaztu behar Matsaria izena agian -edo seguraski- mahatsatik datorrela: antzina hori mahatsa landuko zen. Ardoa egiteko, noski. Zer mahasti? Hori enologoez esango dute.

– Eibarrekin zelako harremana duzu egun?

Betiko moduan, ona. Lan ikuspegitik gero eta gutxiago etortzen naiz; baina, hala eta guztiz, Bilbotik astero etortzen naiz, gutxienez behin. Nire seme-alabak Madrilen eta Alemanian bizi dira. Eibarren loibak ditut, eta betiko kuadrila. "Whatshap" bitartez kontaktuari eusten badiogu ere, ez da gauza bera elkarrekin egotea.



Onartu dabe ixa 39 millioi euroko Udal Aurrekontua

Eibarko Udalbatzak behin behiñeko onespina emon zetsan 2019. jardunaldirako Aurrekontu Orokorrari astelehenian egindako ezohiko bilkuran, PSE-EEko ziñegotzixen aldeko botuekin (10). EH-Bilduko ordezkariak (5), barriz, kontrako botua emon eben eta Eibarko EAJ-PNV(4) eta Irabazi (1) abstenidu egin ziran. Aste honetan onartu daben aurrekontuak 39 millioi euroak gainditzen dittu (39.007.467,54 eurokoa da, zihetz esateko; iazkuarekin alderatuta, %11'4ko igoeria egon da) eta behin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emon eta, ondorengo hamabost laneguneko tartian erreklamaziñorik egin ezian, behin betiko onartutzat emongo dabe.

Botaziñua egin baiño lehen, alderdi bakotzak bere boto-erabagixaren inguruko arrazoiak azaltzeko tartia euki eban eta berba egitten lehelengua **Irabaziko ordezkari, Maria Jesus Agirre** izan zan: "Azaruan aurkeztu zeskuen zirri-borrua hartu genduanian, guk atzera be aterpetxia egitteko gure eskaeria ekarri genduan gogora, hori izan zan guk ipiñittako kondiziñua aurrekontuari gure babesa emoteko. Aterpetxia nun egin be ber-

din zeskun, nunbaiten egitten zan bittartian, baiña betiko erantzuna jaso genduan: aterpetxiaren gaixak eskualde osuari eragiten detsala eta, hortaz, zortzi udalerrixen artian aztertu biharreko kontua dala. Gauzak holan, oin dala egun batzuk ikusi dogu hotz haundixa egitten dabenerako lotarako zerbitzua emoteko dispositibua martxan ipintzeko proposamena plenora eruatzen. Pentsatzen dogu dispositibo horrek duguazen premiñeri ez detsela benetan erantzuten, ordutegi aldetik zein beste alde batzuetatik murrizta topatzen dogu eta, edozelan be, ez da guk eskatutakua, horregaittik erabagi dogu abstenitzia".

Josu Mendicute Eibarko EAJ-PNVko bozeramaillak enpleguari eta ekonomixari lotutako hainbat datuekin ekin zetsan bere interbenziñuari: "Eibarren duguazen establezimenduen %89 zerbitzuen arlokuak dira eta industrialak, barriz, %9 baiño ez dabe osatzen. Horren eragiñez, Eibarko 'per capita' errenta Debabarrena, Gipuzkoa eta Euskadikua baiño %25 txixixagua da, batz bestea eibartar batek urtian 7.500 euro gitxiago irabazten dittu eta ezin leike holakorik onartu. Are gitxiago Udalak inbersiñuak egitteko ahalmena dakanian, %25eko zortze-maillara aillegau leike, baiña Eibarko Udalaren zorra %1'95ekua baiño ez da. Ezin dogu ulertu zergaittik ez daben diru hori lur-industrialak erosteko erabiltzen. Inbersiñuetarako kopuruak gora egitteko EAJ etorri bihar izan jakue hori eskatzen".

Izan be, Udal Gobernuak jeltzaliekin egindako billeretan, azkenian alde bixak ados ipintzia lortu eben, hortik EAJ-PNVko ziñegotzixak abstenziñuaren bidia hartzia eta, holan, aurrekontuak aurrera egittia ez oztopatzia. Hitzartu dabeneran arabera, 2018xan jeltzaliekin adostu eta oindiok bete ez diran zuzenketak bete bihariko dittue eta, horrekin batera, ekonomixia indartzeko eta Rialtoko merkatu plazia txukuntzeko 340.000 euro gehixago sartu dittue aurrekontuan.

Betetzeko pendiente duguazenen artian, bestiak beste, Errebal, Ego Gain eta Julian Etxeberria kaliak peatonalizatzia; Aizarnan, Asua Errekan eta Errekatxun aparkalekuak egittia; Mekola-Arratebide, Ubitxa-San Kristobal eta Errekatxuko reurbanizaziñua; eta igogailuak, Matsarixa eta Txonta auzuak goititik behera itxurabarriztia dagoz, 29 bat proiektu danera.

Eta kontrako botua emon eben bakarrak **EH Bilduko** ordezkariak izanda, holan arazoittu eban euren erabagixa **Igone Lamarain bozeramaillak**: "Guk osoko emendakiña aurkeztia erabagi genduan, PSEren Udal Gobernuak 2019rako proposatutako Udal Aurrekontua ondo aztertu ostian, PSEk inziatibarik gabe segitzen dabela ikusten dogulako, euren politikia betikua da eta ez dake ezer aldatzeko asmorik: obrak, eta obrak, eta obra gehixago, eta gaiñera ez dittue amaitzen. Horrez gain, guretako lehen sektoriak benetako garrantzixa dauka

eta ez dabe kontuan hartzen. Ez dakigu nun dagan akzesibilitate plana eta, bittartian, eskilara mekanikuen eta igogailuen mantenimientuan 600.000 euro baiño gehiago gastatzen segitzen dogu. Bestiak beste, partehartze prozesua benetan martxan ipintzia, auzuetan inbersiñuak zeren arabera egitten dittuen azaltzia eta Udal funtzionamenduan dagan azpikontrata mailla al-tua bajatzia eskatzen dogu”.

Aurrekontua onartu dabela eta, **Miguel de los Toyos alkatea** pozik azaldu zan: “Aurrekontua iazkua baiño haundixagua da eta, horrerri esker, gauzak egitteko eta proiektuak garatzeko aukeria eukiko dogu”.

Inbersiño inportantienak

Onartu barri daben Udal Aurrekontuan jasota daguaz inbersiño nagusiñak aittatuko doguz jarraixan. **Ekonomia, Berrikuntza eta Enplegua sailari** lotutakuak: “Enpleguaren Sustapena” (910.709 euro), “Oinarriko Lanbide Heziketako Udal Institutua” (389.432 euro), “Enpresarial Garapena eta Berrikuntza” (1.439.614 euro) eta, horrekin batera, 140.000 euro erabiliko dittue enpresak diruz laguntzeko, ekintzetan laguntzeko, enplegarritasuna hobetzeko eta kontrataziñuak egitteko.

Gizartekintza arluari begira, 2019ko Aurrekontuen proposamenian 475.687 euro-raiño aillegatzen dan partida bat sartu dabe Gizarte Larrialdietako Laguntzetarako (GLL) eta 250.000 euro baiño gehiago arrisku-egoeran edo babesik gabe daguazeneri laguntzeko. Kultura-aniztasuna, inmigraziñua,

PSE-EEren aldeko botuekin, EH-Bilduren kontrakuekin eta EAJ-PNV eta Irabaziren abstenziñuarekin onartu dabe presupuestua

genero-berdintasuna, Gizarte Zentruen alkarlanian jarduteko, Garapenerako laguntzak eta GKEkin batera biharra egitteko eta osasunarentzat kaltegarriak diran jokabi-diak prebenitzeko 3.750.000 euro inguru bideratuko dira. Aurreko jardunaldixarekin konparatuz gero, % 13’5etik gorako igoeria dago.

Aurrekontu-proposamenian jaso dittuen **hiri-inguruniak hobetzeko** proiektuetarako, irisgarritasun-egitasmuetarako, oiñezkuentzako segurtasun-planetarako eta zerbitzu publikuen eskintza hobetzeko proiektuetan gastatzeko, bestalde, 7’8 milioi euro dagoz.

Aurreikusitakuaren arabera, **Errebal Plaza** funziño anitzeko ekipamenduaren obrak atzera be hasiko dittue laster eta obra horretarako lizitaziño-aurrekontua 6.399.497 eurotakua da; horretatik 3.032.500 euro aurtengo Aurrekontu Proposamenian aurreikusi dittue eta gaiñerakua hurrengo urtietarako. Hortik kanpora beste 2 milioi eu-

ro gehiago bideratuko dira Obrak sailera. Aurten be 800.000 euroko partida esleitu dabe herritarrak inguru bakotxian dirua zertan inbertidu nahi daben parte-hartze prozesu baten bittartez jasotzeko. Eta 100.000 euro dagoz Hiri Antolaketakoko Plan Orokor barri bat idazten hasteko.

Bestalde, 5 milioitik gorako aurrekontua egongo da **hiri-mantentze eraginkor eta efizientia** lortzia ahalbidetuko daben neurrietan erabiltzeko (kale-garbiketia, hiri-altzarixak mantentzia eta barrizatza, LED argixetarako inbersiñuak, kale batzuk asfaltatza eta beste hainbat).

Kultura arlorako 2’5 milioi euro inguru aurreikusi dira eta Euskeriak, Ingurumenak eta Gazterixak aurrekontuan milioi bat euroko partida funtzional zihetzak dittue. Igoerarik esanguratsua (%85) ingurumena babestera eta hobetzera zuzendutako zenbakeuak euki dabe.

200.000 euro baiño gehiago egongo dira fatxadak barrizatze eta igogailuak ipintzeko. Eta kirol-entidadeeri, kultura arlokueri, auzuetako jai batzordieri, GKE-eri, arlo sozio-sanitarioko erakundieri, bardintasuna sustatzekueri eta euskaria bultzatzekueri emoten jakozen diru-laguntza ia milioi erdikua da. Laguntza horrerri **dirulaguntza izendunen** bittartez jasotzen dittuen 692.027 uruak gehitu bihar jakue.

Informaziño zihetza jaso nahi dabenak, udalaren web orrira (eibar.eus) sartu leike eta han topauko dittu Alkatetzaren Memorixia, Aurrekontuaren laburpena eta beste guztiak.

· Elbarren egindako markak
· Moda
· Etxeko osagarriak
· Yoga:
“Yoga + Jarrera-Adimena”
“Jarrera berregokitzea”
· Pilates Essential:
“Lur eta aireko fusioa”
· Urtebetetzeak
· Formakuntzak
· Dastatzeak
· Hitzaldjak
· Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!

helmet house
CONCEPT STORE

@helmethousestore

moments with a story behind

he O
CONCEPT STORE

Blas Etxebarria K
Coliseo Antzokia Eibar
Bankint
Errebal Kalea



Eibarko M8ko Plataforma feministako kideek agerraldia egin zuten martitzenean, deituta dagoen greba feministaren harira.



"M8an zaintzaren berrantolaketa soziala aldarrikatuko dugu"

Martxoaren 8rako deituta dagoen greba feministaren harira, martitzenean agerraldia egin zuten Eibarko M8ko Plataforma feministako kideek, Arrate Kultur Elkartearen. Azaldu zuten, instituzio zein bestelako taldeetatik kanpora eratu duten Plataforma azaroan hasi zen biltzen eta bertako kideek eskualde mailako bileretan nahiz bilera nazionaletan parte hartu dute, "Euskal Herriko Mugimendu Feministaren deialdiarekin bat eginez". Esandakoaren arabera, greba feministarekin "heteropatriarkatu-kapitalistari planto" egingo diote eta, horrekin batera, "transen, bolleren eta emakumeen bizitzek hartuko dute erdigunea".

Azaldutakoari jarraituz, "bost ardatzetan antolatzen da greba: pensionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da". Hala ere, zaintza grebari indar berezia eman nahi izan diote Euskal Herri mailan eta gauza bera egin dute Eibar mailan ere: "Inkesta batzuk banatu ditugu herriko emakumeen artean eta hainbat emakumeri egindako elkarrizketekin bideo bat ere egin dugu, bizipenak jasotzeko. Inkestan zaintzari buruzko galderak egin dizkiegu: zer da zaintza zuretzat? Nor zaintzen duzu? Nork zaintzen zaitu? Erantzun esanguratsuak jaso ditugu eta zaintzaren alorrean emakumeok daukagun zama azpimarratu nahi dugu".

Zaintza grebaren bitartez bizitza sostengatzeko ardua kolektiboa eskatzen dute eta, horretarako, zaintzaren berrantolaketa soziala aldarrikatzen dute. Bestetik, martxoaren 8an bertan, gizonei zaintza lanen

"Eguneroko normaltasunarekin apurtu nahi dugu. Eibarren dena itxita egotea da helburua"

ardura guztia modu autonomoan hartu eta antolatzea eskatzen zaiela azaldu zuten Plataformako kideek.

Ez kontsumitzeko eta dendak eta tabernak itxeko deialdia

Kontsumo grebaren garrantzia ere azpimarratu nahi izan zuten eta martxoaren 8an ez kontsumitzera deitu zituzten emakume eta gizonak. Gainera, deialdia dendetara eta tabernetara ere zabaltzen dela adierazi zuten eta horiek itxeko oharra zabaldu nahi izan zuten: "Eguneroko normal-

**“Gizona bazara,
 zaintza lanez
 arduratzea da
 lehentasuna”**

tasunarekin apurtu nahi dugu, Eibar geldia-raziz. Dena itxita egotea da helburua. Aurtengo greban kapitalismoari, patriarkatuari, heteroaruari, kapazismoari eta kolonialismoari egingo diogu planto, egungo zarpalkuntza sistema basatia ezin delako termino bakar batekin definitu”.

Ikasle emakumeek ere greba egingo dute

Ikasle emakumeek ere greba egingo dute martxoaren 8an eta, horren harira, ikas-tetxe batzuk jartzen ari diren trabak nabarmendu nahi izan zituzten: “Ez dute ulertzen greba ez dela mixtoa eta, horren aurrean, argi adierazi nahi dugu hezkuntza eremuko emakume guztiek dutela greba egiteko eskubidea”.

Greba egiteko moduei dagokienez ere, aurtengoa greba babesteko hainbat modu dagoela aipatu zuten: lantoki eta ikasgeletan greba eginez, herri eta hirietako mobilizazioetara joanda, zaintzeari lagata eta, hori irudikatzeke, amantala balioan eskegiz, zapi morea jantziz...


Eibarrerako egitarauari dagokionez, egun osokoa prestatu dute, “aurtengo 24 orduko greba delako”. Azpimarratu nahi izan zuten, bi mobilizazioak (12:30ean egingo den elkarretaratzea eta 20:00etako manifestazioa) dira egitarauko ekimen mixto bakarrak, eta horietara gerturatzeko diren gizonak atzean jarri beharko direla argi laga nahi izan zuten.

Gizonezkoen papera

Emakumeek daude deituta grebara, “baina martxoaren 8an ez dugu kapitalaren erreproduktzioerako jarduerarik nahi. Gizona bazara zaintza lanez arduratzea da lehentasuna, eta ez mobilizazioetan parte hartzea.

Etxeko eta zaintza lanez arduratzeko eskatzen diegu gizonari, baina mobilizazioetan parte hartzen baduzu, gogoratu emakumeon protagonismoa eta bisibilizazioa ezinbestekoak direla. Gizon moduan, hori ahalbidetzea dagokizu, jar zaitez atzeko aldean, agindu edo azalpenik eman gabe”.

Azaldu zuten, “ilusioz eta itxaropenez gaude eta herriko emakume guztiak animatu nahi ditugu eguneko dinamiketan parte hartzerantz”. Horrekin batera, Plataforma irekia dela eta oraindik bertan parte hartzeko aukera badagoela gogorarazi nahi izan zuten.



FELIX BERGARA ZURUTUZA (apaiza)
VI. urteurrena (2013-II-22)

“Eskerrak eman nahi dizkizugu, Felix, parrokiaren eta auzoaren alde egindako lan guztiagatik”

HAREN IDAZKARIA (M^a DEL CARMEN FERNANDEZ MEMBRIBE), SENIDEAK, JASOKUNDEKO ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK

Haren aldeko **MEZA** ospatuko dugu domekan (hilak 24), Azitaingo Jasokunde Parrokian, goizeko 11.00etan



*pedro alberdi*

Kuartela

Eskuarteetan dut Apaizak ere torturatuak liburu argitaratu berria, eta bertan, Eibarko kuartelean igarotako gau baten lekukotasuna ematen dute Juan Mari Zulaika eta Felipe Izagirre fraide frantziskotar ohiek, 1968ko ekainean, Txabi Etxebarrieta etakidearen erailketagatik egindako protesta-manifestazio batean atxilotuak izan ostean: *“Armen gelan eduki gintuzten gau osoan, kulatekin kolpeka, ostikoka, txandaka denek parte harturik, deskantsurik gabe jo eta jo. Gu biok haien kolpeetatik eskapa ezinik ibili ginen, mahai azpira edo mahai gainetik saltoka. Gerritik behera, ipurdi, izter eta hankak zeharo ubelduta laga zizkiguten”*.

Nik orduan hamaika urte eta Isasi gainean ikasten nuen. Eskolako lagunik onenetako bat Ceballos nuen: mutil alai eta sanoa ez ezik, futbolari bikaina. Aita guardia zibila zuen, eta horrenbestez,

Eskolako lagunik onenetako bat Ceballos nuen: mutil alai eta sanoa ez ezik, futbolari bikaina. Aita guardia zibila zuen eta kuartelean bizi zen.

kuartelean bizi zen, anaia nagusia eta gurasoekin. Behin jakinaria zidan zein zen euren etxebizitza, –Zezen Plazaren izkinako go-rengo, alegia–, eta harrezkero, inguru hartatik pasatzean, beti begiratzen nuen nire lagunaren etxeko balkoira; inoiz haren ama ikusi ere bai bertan, zapiak eskegi edo jasotzen.

Larunbat arratsalde batez, Isasiko ikastetxetik irten, eta nora jo ez genekiela, kuartel aurreko plazan azaldu ginen hiruzpalau lagun. Aspertuta geunden, eta halako batean Ceballosek kuartel barrura sartzeko gonbita egin zigun. Gonbitak eragindako harri-dura gainditu ondoren, haren atzetik joan eta pilota-hotsak entzuten ziren aldera zuzendu ginen. Han, hainbait gizon gazte sa-soikoak pilotan ari ziren frontoian, eskuz, elastiko hutsean, eta eurekin jolastera animatu gintuzten.

Asko maite nuen Ceballos, gaur Juan Mari eta Felipe beste.

*lorea arakistain*

Herentzia digitala

Lagun bati senitarteko bat hil zaio berriki. Senitartekoak, adinagatik, ez zuen bere asteburuaren kronika Instagramera igoko, lagunei kontatuko zien kafearen bueltan. Familiako argazkiak ez zituen Google Photosen gordeko, etxeko apaletan pilatutako albumetan baizik. Ez zuen Netflix harpidetzarik izango, La 1 ikusiko zuen bazkalostean. Erosteke ez zuen PayPal erabiliko, herriko dendetan erosiko zuen eskudirutan; eta, kriptomonetak zer ziren ere ez zuen jakingo.

Kontua da lagun honi galera honek herentziaren -batez ere digitalaren- kezka piztu diola, kezka pertsonala ziurrenean.

Bada, zer gertatzen da gure profil eta eduki digitalekin hiltzen garenean?

Hasiera batean, ezer ez. Bizitza digitalak aurrera jarraitzen du, eta erabiltzailearen profilek eta kontuek -eta horietan gorde dituen datu, eduki, mezu eta txanponek- haien bidea egiten jarraituko dute. Postontzietara mezuak iritsiko dira, harpidetzek

“Zer gertatzen da gure profil eta eduki digitalekin hiltzen garenean? Dolua ez ezik, kudeaketa ere erraztu dezake herentzia digitala antolatzeak”

aktibo jarraituko dute eta argitalpenek online. Harik eta senitartekoek hildakoaren herentzia digitala antolatzearen ardura hartzen duten arte.

Hil aurretik hil ondorengo aurreikusiz gero egoera desatseginak saihestu daitezke. Ez zaizue gertatu sare sozial batek hilda dagoen pertsona bat lagun gisa gomendatzea?

Dolua ez ezik, kudeaketa ere erraztu dezake herentzia digitala antolatzeak. Hasteko, **pasahitzak**. Zenbat pasahitz kudeatzen ditu gutako bakoitzak? Horiek guztiak pasahitz kudeatzaile batean bildu eta pasahitz nagusia testamentuan, notario aurrean edo kutxa gotor batean jaso eta arduradun bat izendatzea komeni da.

Horrez gain, zerbitzu eta profil bakoitzarekin zer egin zehaztu beharko genuke. Baita baliodun ondarea -izan argazkiak ala bit-coinak- nori uzten diogun adierazi ere. Milioika euro dira, pasahitz baten gatibu, sarean jaberik gabe geratu diren kriptomonetak.



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa...

Eskuartean daukazun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore honetako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.



www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29




Barrena. Eibar Ref. 1492
3 logela eta 2 komun, 113 m². Guztiz berritua. 2 balkoi, kalefakzioa eta igogailua 0 kotara. 185.000 €



Legarre-gain. Eibar Ref. 1476
4 logela. Terraza. Igoigailua 0 kotara. 165.000 €




San Agustin. Eibar Ref. 1232
3 logela eta 2 komun. Guztiz berritua. 2 trastelekurekin. 320.000 €



Indalezio Ojanguren. Eibar Ref. 1418
3 logela eta 2 komun. Bista ederrak eta terraza. Igogailua eta kalefakzioa. 255.000 €



Bidebarrieta. Eibar Ref. 1330
2010ekoa. 2 logela eta 2 komun. Altzariekin. 244.000 €




Mutiola. Eibar Ref. 1410
2 logela. Terraza. Kalefakzioa, igogailua eta trastelekua. 149.000 €



San Juan Galdetu

3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Konpontzeko.



Erreal Galdetu

125 m². 4 logela, egongela-jangela, sukalde-jangela eta 2 komun. Igogailua, trastelekua eta kalefakzioa.



Ipuruako dorreak 225.000 €

94 m²-ko etxebizitzak. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Pisu altua.



T. Etxebarria Galdetu

5 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Igogailua.



T. Etxebarria Galdetu

2 logela, komuna, sukalde-egongela. Konponduta. Igogailua eta kalefakzioa.




Amañako dorreak 90.000 €

3 logela, sukalde-egongela eta komuna. Kalefakzioa. Eraikuntza konpondu berria.



Jardineteta 80.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Ganbara eta igogailua. Konpontzeko.



Romualdo Galdos 150.000 €

2 logela, sukalde-jangela-egongela eta komuna. Trastelekua.



Bidebarrieta Galdetu

110 m². Konpontzeko. Aukera asko.




Erreal Galdetu

196 m². 4 logela eta 3 komun. Trastelekua. Barrera arkitektonikorik gabe.



T. Etxebarria Galdetu

3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Konpontzeko.



Juan Gisasola Galdetu

3 logela, Egoera onean. Barrera arkitektonikorik gabe.



Barakaldo Galdetu

3 logela eta 2 komun. Egoera onean. Garajea aukeran.



Jardineteta 110.000 €

3 logela, 2 komun, sukalde-jangela. Igogailua eta kalefakzioa.




San Juan 225.000 €

108 m². 4 logela. Trastelekua.



Polonia Etxebarria Galdetu

2 logela, egongela, sukalde-jangela eta komuna. Egoera onean. Trastelekua eta igogailu berria.



San Juan 155.000 €

2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Igogailu berria.



Toribio Etxebarria, 1

943 20 03 58

fincas@euki.com

www.euki.com



API 323

- I Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- I Galdetu zure etxebizitzaren Finantziatorako Bidea:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- I Informazio Pertsonalizatua**

**GARAJE
PLAZAK ETA
GARAJE ITXIAK**

Salmentan eta alokairuan.

**LOKAL
KOMERTZIALAK
ETA INDUSTRIALAK**

Salmentan eta alokairuan.



Errebal Galdetu
Azken pisua. Igogailua kaleraino. Terrazarekin.



Amaña 110.000 €
Ezinhobea eta eguzkitsua. 3 logela, sukaldea balkoiarekin. Trastelekua.



T. Etxebarria Galdetu
Konpontzeko. Igogailuarekin.



T. Etxebarria Galdetu
Apartekoa. Balkoiarekin. Igogailua kaleraino.



Isasi 175.000 €
Pisu altua. Konponduta. Oso bista onak. Igogailuarekin. 3 logela.



Barrena 75.000 €
Konpontzeko. Igogailua kaleraino.



Barrena 125.000 €
Aparta. 3 logela. Igogailua kaleraino.



Ipurua Galdetu
Konpontzeko. Igogailua. 3 logela eta ganbara.




Romualdo Galdos 150.000 €
Primerakoa. 3 logela. Trastelekua eta igogailua.



Egiguretarren Galdetu
Pisu altua, leiho handiekin. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garaje itxia aukeran.



Santa Ines 138.000 €
Etxebizitza aparta. Guztia kanpora begira.



San Kristobal 57.000 €
Buhardilla. Igogailua.



Jardineteta Galdetu
Primerako etxebizitza. 60 m²-ko terraza. Igogailua kaleraino.




Jardineteta 105.000 €
Gazteentzako aproposa. Oso bista onak.



Jardineteta 70.000 €
Aukera. 2 balkoi.



Ipurua Galdetu
Etxebizitza altua eta eguzkitsua. 3 logela, 2 komun. Terraza.




Arane 145.000 €
Ezinhobea. Apartamentu handia, terrazarekin.



Karlos Elgezua 85.000 €
Erreformatua. 2 logela, sukaldea eta jangela.



Txonta 137.000 €
Igogailua eta terraza. Etxebizitza handia, 3 logelarekin.



Urkizu 99.000 €
Igogailua kaleraino. Konponduta.



Zarautz Galdetu
3 logela, egongela ederra, 2 komun, sukaldea trastelekuarekin. 2 terraza. Garaje eta trastelekua. Igogailua kaleraino.



Txaltxa Zelai 160.000 €
Guztiz konponduta. Igogailua eta balkoia. 3 logela.



Urkizu Galdetu
Oso eguzkitsua. Bistak parkera. 4 logela, balkoia.



Amaña 154.700 €
Primerakoa. Sekulako bistak. Garaje eta trastelekua.



Bidebarrieta 94.000 €
Aukera. Igogailua.



etxeak
zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Etxebizitza erosterakoan kontuan hartu beharrekoak

Etxebizitza bat erostea erabaki garrantzitsua eta konplexua da, diru kopuru handia inbertitu behar delako eta tramitazio luzea eskatzen duelako. Eraikitzaileak, sustatzaileak edo etxebizitzak enpresa edo lanbide-jarduera baten barruan eskaintzen dituenak honako informazio hau jarri behar du jendearen eskura (beraz, kontuan izan behar dugu partikularren arteko salerosketetan ez dela nahitaezkoa izango informazio hori ematea):

Identifikazio-datuak:

- Saltzailearen izena edo enpresa-izena, helbidea, eta, hala badagokio, Merkataritza Erregistroko inskripzioaren datuak.
- Etxebizitza lehen aldiz eskualdatzen bada, arkitektoaren izena eta helbidea, eta eraikitzailearen izena edo enpresa-izena.

Eraikinaren ezaugarriak:

- Etxearen kokapenaren plano orokorra eta etxebizitzaren beraren planoak.
- Etxebizitzaren deskribapena. Azalera erabilgarria adieraziko da eta orokorrean deskribatuko dira

etxebizitza dagoen eraikina, haren eremu komunak eta zerbitzu osagarriak.

- Eraikina eta etxebizitza eraikitzeke erabilitako materialen eta eraikuntza-sistemen ezaugarriak: barne-estaldurak, egurrak, kristalak, isolatzaile termikoak eta akustikoak, etab.
- Leihoen neurriak, eta argiztapen eta aireztapen azalerak.
- Elektrizitate-, ur- eta saneamendu-sareen deskribapena eta planoak, eta, hala badagokio, gas-sarearenak. Instalazio komunak deskribapena, eta, hala badagokio, ur beroaren eta berogailuaren kontagailuena.
- Instalazioak erabiltzeko eta horien mantentze-lanak egiteko jarraibideak adierazi beharko dira, jarduera edo ezagutza bereziren bat eskatzen badute. Larrialdietan etxea uzteko jarraitu beharreko jarraibideak ere adierazi beharko dira.
- Eraikinean jarritako igogailu eta karga-jasogailuen ezaugarriak eta horien segurtasun-neurriak.
- Suteen aurkako neurriak eta eraikinak dituen suteen aurkako ekipoen kokapena.

IbaiOndo
inmobiliaria
Bidebarrieta, 24 behea
Tel. 943 201213
www.inmoibaiondo.com
ibaiondo@inmoibaiondo.com

dp donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAN BAKARRIK
Isasi, 16
EIBAR
M. Valdespina, 12
ERMUA
www.donpiso.com 943 82 05 10 618 769 839

Zure etxea saltzeko
modurik azkar, errez
eta eraginkorrena
donpiso@donpisoieibar.com

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA
Errebal, 20
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

Arragueta, 2 bis B-behea
943 20 08 60

agencia
inmobiliaria
Juaristi
A.P.I.: Rosa Juaristi
rosa@inmobiliariajuaristi.com
www.inmobiliariajuaristi.com

- salerosketak
- errentamenduak
- balioztatzeak

Partidua galduta ere, Eibar FT-ko emakumezkoen lehen taldea 1. B Mailara igo da

Alavesen kontra 0-2 galduta zuten Telletxearen neskek aurreko domekan Unben jokatuako partiduan eta, horrek 1. Mailara igotzeko play-offean izateko gauzak zailtzen badizkie ere, eibartarrek maila igotzea lortu dute dagoeneko. Hurrengo denboraldirako 1. eta 2. Mailen arteko beste bat sortuko dute (1. B Maila) eta hor jokatzeko txartela eskuratu dute eibartarrek. Hala eta guztiz ere, liga amaitzeko zortzi jardunaldiren faltan Eibarrek

ez du baztertzen multzoko lehenak amaitzea (orain Alavesengandik hiru puntura daude eta golaveragea aurka dute). 2. Maila Nazionala zazpi multzotan dago banatuta, eta horietako lehen sailkatuek jokatu dute 1. Mailara igotzeko play-offa puntu gehien lortzen duen bigarren sailkatuarekin batera. Une honetan Oviedo da azken talde hori (porrot bakarra eta berdinketa bat), Eibarren aurretik (azken domekako porrota eta bi berdinketa).



Partidu bakarra galdu dute eibartarrek aurten, aurreko domekakoa.

Aurreko domekako partidua hasi aurretik, orain dela 20 urte Erreginarenean Superkopa irabazi zuten Eibartarrak taldeko jokalariei egin zieten omenaldia eta Maider Castillo talde hartako jokalaria egin zuten

ohorezko sarea. Giro berezia izan zuten partidua Unben. Orduko hartan final hori bi partidutara jokatu zuten eibartarrek Madrigo Oroquieten aurka eta biak irabazi zituzten: 3-0 Unben eta 0-5 Madril.



Mikel eta Doroteo Urkia Aquarium-eko ekitaldian.

Hiru eibartar saritu zituzten Gipuzkoako Kirol Galan

Javier Escudero urpeko jardueretan, Jon Alegria espikerra triatloman eta Doroteo Urkia bola eta toka modalitateetan izan ziren aurreko asteko eguaztenean, hilaren 13an, AFEDEGIK (Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteak) Donostiako Aquariumeko auditorioan antolatutako ekitaldian ondo merezitako sariak jaso zituzten eibartarrak. Egun ezin biribilagoa izan zen Doroteo

Urkiarentzat justu 81 egiten zituelako egun horretan ("abestu eta guzti egin zioten auditorioan") eta saria, gainera, gaur egun hiru-txirlo modalitateko presidentea den Mikel semeak eman ziolako. Doroteok, bestalde, modalitatean ibilbide luzea egiteaz gain, 22 urtetan izan zen presidente: "Gainera, lehenengo aldia da hiru-txirlo aukeratzen dutela saria jasotzeko".

Herriko atletek bikain jardun dute Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan

16, 18 eta 20 urtetik beherako txapelketak jokatu ziren aurreko asteburuan, hiru mailatakoak Donostian zein Gasteizen. Arabako hiriburuan Euskadiko neguko jaurtiketa luzeen txapelak izan ziren jokoa eta Eibarko Klub Deportiboko

ordezkariek urrezko eta zilarrezko bina domina irabazi zituzten, guztiak ere jabalina jaurtiketean. Garaia Magunazelaia eta Carlitou Mendyk txapela jantzi zuten eta Enara Magunazelaia eta Mikel Martinez azpitxapeldun geratu ziren. Donostiako belodromoan, bestalde, probintziako txapelak izan ziren jokoa eta hor eibartarrak bost dominekin bueltatu ziren: Nora Zabala urrezko bi eskuratu zituen (hirukoitzean eta luzeran), Artaz Morak ere txapela irabazi zuten pisu jaurtike-



Jabalinarekin dominak irabazitako laukotea.

tan, eta Maddi Sarasua (hirukoitzean) eta Kepa Marquez (luzeran) brontzezkoarekin itzuli ziren. Legazpin jokatuako Gipuzkoako Eskola Kros txapelketan, Aiora Unzeta alebina 14. postuan sailkatu zen.

Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketak urrezko ezteiak ospatuko ditu

Denboraldi berezia izango da aurtengoa Gipuzkoako hiru-txirlo bola joko txapelketarentzat, lehiaketaren 50. edizioa jokatuko delako. Hori dela-eta, hiru txapelketa izango dira jokoan: betiko formatuari jarraituko diona, hiru barixaku gauetan erabakiko dena eta beste hiru jaurtialdi berri izango dituena. Horrez gain, Lasturko jaurtialdia bi txapelketetarako izango da puntuagarria. Saio guztiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira, azkenengo hirurak kenduta, egun berezi horietako tiraldiak goizeko 11:00etan abiatuko baitira. Bestalde, Asola Berrin (apirilaren 27an), Elgetan (maiatzaren 25ean) eta Elgoibarko San Miguelen (ekainaren 1ean), bezpera gauetan txapelketa berezia jokatuko da 22:30etik aurrera.

Gipuzkoako txapelketarako egutegia honela geratu da: martxoaren 23an Elgoibarko San Pedron, martxoaren 30ean



Edozer gertatuta ere, Asola-Berrikoa izango da ordezkio bolatokia txapelketa guztian.

Bergarako San Joxepen, apirilaren 6an Soraluzeko San Andresen, apirilaren 13an Azkoitiko Floreagan, maiatzaren

4an Aretxabaletan, maiatzaren 11n Azpeitiko Garmendipen, maiatzaren 18an Itziarko Lasturren, maiatzaren 25ean Elgetan eta, azkenik, ekainaren 1ean Elgoibarko San Miguelen. Azken hiru jaurtialdiek badute berezitasunik: Lasturkoa botaldi berezirako puntuagarria izango da, Elgetakoan azken jaurtialdia izateaz gain parrekoak erabakiko dira eta, azkenik, ekainaren 1ekoan ohikoa denez Lehendakaria Saria izango da jokoan, bazkaria eta omenaldiarekin batera.

Botaldi berezien egutegiak, bestalde, lau asteburu hartuko ditu, lehenengoa Gipuzkoako txapelketa hasi aurretik eta azken biak txapelketa amaitu eta gero: martxoaren 2an Aretxabaletan (17:00etan), maiatzaren 18an Lasturren (17:00etan), irailaren 21ean Elgoibarko San Miguelen (11:00etan) eta abenduaren 15ean Leintz Gatzagan (11:00etan).



Euskadiko Kopa irabazi ondoren, gizonzkoen taldeak ligako partidu guztiak irabazi ditu.

Waterpoloko beteranoak ere garaile Errioxan jokatutako partiduan

Urbat-Urkotronik waterpolo taldeek denboraldiko ibilbide bikainarekin jarraitzen dute eta azken asteburuan, esaterako, bost norgehiagoka irabazi zituzten eta bakarra galdu. Euskal Herriko 1. Mailan jokatzen duen Urbateko emakumezkoen taldeak ondo jokatuz, baina amore eman behar izan zuten Leioaren aurrean Sakoneta igerilekuan (8-5). Bizkaiko herri horretan bertan infantil mistoen mailako Urbat 11-14 nagusitu zen eta gauza bera egin zuten kadeteen mailakoak Orbean, Portugaleteko Nauticari 17-4 nagusitu-

ta. Waterpolista gazteen talde bi horiek ikasturte honetan jokatutako partidu guztiak irabazi dituzte. Senior mailako gizonzkoen taldeak, bestalde, Kopa irabazteaz gain, bigarren da Euskal Herriko 1. Mailako ligan, bederatzia partidu irabazi, bat berdindu eta bi galduta: azken jardunaldian 13-8 irabazi zion WP Donosti aurkari zailari Orbeako igerilekuan. Master mailako beteranoak ere igerilekura bueltatu ziren asteburu honetan eta, Larrainako igerilekuan jokatutako norgehiagokan, 3-12 irabazi zioten Riojari.

13 kilometroko ibilbidea txotxaren erritmora amaitu zuten Deporreko mendizaleek Aramaion


Aurreko zapatuan Arrasatetik Aramaiora jo zuten Elgoibar eta Eibarko mendizaleek. Erguin auzoan hasi zuten jarduna eta, Uda-la auzotik pasatuta, Betsaideko tontorrera heldu ziren (bertan dute mugarri Gipuzkoak, Arabak eta Bizkaia). Lurgorri aurrenik (785 m.) eta Teilamendi gero (830 m) gaindituta, bista bikainekin gozatu eta jaitsierari ekin zioten Aramaiora heltzeko: "Arabako herririka horrek 30 baseliza ditu, zein baino zein interesgarriagoak. Guk ltabeko Andra Mari baseliza ikuskatu genuen, bere perfil bobedatuarekin". 13 kilometroak osatuta, dutxa ederra hartu zuten kiroldegian, jarraian Iturrieta sagardotegi dotorean "txotxaren erritmora bazkari lege oparora egiteko".



Deporreko mendizaleek orainoan Elgoibarkoekin egin zuten txangoa. Irudian Teilamendi mendian, atzean Anboto dutela. Periko Iriondo

41. Udaberri Sariarekin hasiko da domekan Eibarko Txirrindulari Elkartearen denboraldia

Junior mailako lasterketa goizeko 09:45-ean abiatuko da Untzaga plazatik eta, 79 kilometroko ibilbidea egin ondoren, handik bi ordura gutxi gorabehera, Toribio Etxebarria kalean amaituko da 11:40ak bueltan. Junior mailako txirrindulariek Oñatiraino joko dute hasteko, gero Udana gainari egin beharko diote aurre lasterketaren erdi inguruan (34,7 kilometroan), eta Legazpi, Zumarraga eta Azkoitiatik pasatu ondoren, Azkarate gaina izango dute zain 65. kilometroan. Jarraian, San Antolin bilatu eta Elgoibartik zuzenean etorriko dira Eibarreraino, T. Etxebarriaren kokatutako helmugaren bila.



ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Athletic - Eibar (bihar, 20:45)

Emakumezkoen 2. Maila

Revellin - Eibar (etzi, 12:00)

2. B Maila

Durango - Vitoria (bihar, 16:00)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Bergara (bihar, 15:30)

Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Beti Gazte (bihar, 17:45)

1. Erregionala

Bergara - Urki (bihar, 15:30)

Ordizia - Eibartarrak (bihar, 15:30)

FOBALL-ZALETUA

Durango - Bar Txoko (bihar, 09:00)

Feredu - Los Paisanos (bihar, 10:30)

Slow XOK - JMR Erreformak (bihar, 12:00)

Azkena Adahi - Chic (etzi, 09:00)

La Jara - Ipur Sagardotegia (etzi, 10:30)

Garajes Garcia - Bar Areto (etzi, 12:00)

ESKUBALOA

1. Nazional Maila

Trapagaran - Somos Eibar (bihar, 18:45)

Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Munttarpe (gaur, 20:30)

SASKIBALOA

Gipuzkoako 3. Maila

Take Coach - Avia Eibar (bihar, 14:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

WP Navarra - Urbat IKE (bihar, 14:00)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - CW 9802 (etzi, 14:45)

KIROL-AGENDA OSOA
etakitto.eus HELBIDEAN

*asteburuko emaitza guztiak
astelehen goizerako*

Eibar FT-k derbia du zain bihar San Mamesen



Giroa bikaina da Eibar FT-ko zaleen artean bihar San Mamesen jokatu den partduari begira.

Premier Bidaiek-ek antolatutako irteerarako epea amaituta, zortzi autobus bete ziren eguaztenerako; guztira Bilbora 450 lagun eramango dituzte. Badira beste asko auto partikularretan joateko asmoa dutenak. Bestalde, Mendilibarrek ia jokalar guztiak ditu prest "eta jokatzeko gogoz" derbi horretarako: Jordi Calavera da baja bakarra, Ramisek San Mamesen egoteko baditu bere aukerak eta Pedro Leon eta Dmitrovic normaltasunez entrenatu dira azken egunotan. Partidua 20:45ean hasiko da eta Eibar FT Bilbon lehen garaipena lortzeko asmoarekin doa. Saillapenean puntu bateko aldea dago, une honetan eibartarren alde. Ipuruan bana berdindu zuten lehen itzulian.

Ipuruako gimnastek Gipuzkoako txapelketako lehen fasea osatu dute

Senior, jubenil eta kadete mailako taldeek aurreko asteburuan jokatu zuten Bergaran euren lehenengoko kanporaketa Gipuzkoako txapelketari begira, eta alebin eta infantil mailakoek Arrasaten izan zuten bataioa lehen fasearekin. Datorren domekan, bestalde, oinarri mailako jubenil eta infantil taldeek hitzordua dute Gasteizen. 110 gimnastekin osatutako Ipuruko taldeak, beraz, lehiaketari serio heltzeko orduaren aurrean dira dagoeneko.



Afizionatuen pilota jaialdia gaur Astelenan

Federatuen arteko bi neurketa eta Pilota Eskolako beste bat hartuko du gaur arratsaldeko pilota jaialdiak Astelenan. 19:00etan hasiko da Pilota Eskolako bi bikoteen arteko partiduetan: Azkarate/Saez vs largo/Meabebasterretxea. Ondoren federatuen ordua izango da: kadeteetan, Eibarko Klub Deportiboko Azkargorta/Camina bikoteak Lazkaoko LAPKE klubeko ordezkarien aurka jokatu du; eta, amaitzeko, helduen arteko norgehiagokan, Deporrek Agirresarobe/Gastañaga bikoteak nor baino nor jardungo du Usurbilgo Pagazpe klubeko bikotearen aurka. Jaialdi interesgarria, beraz, herriko pilotariak protagonista izango dituena.



2019ko martxoaren 12an, asteartea - Portalea kultur etxea - EIBAR



EUSKARAREN TRANSMISIOA

IX. MINTEGIA

Izen-ematea: otsailaren 18tik martxoaren 7ra arte

www.etakitto.eus 943 20 09 18 normalizazioa@etakitto.eus

- 08:45 - 09:00.** Akreditazio eta dokumentazioa.
- 09:00 - 09:15.** Ongi- etorria.
- 09:20 - 10:05.** "Euskara eta inmigrazioa. Errealitatea eta usteak" .
Gorka Moreno. Euskal Inmigrazioaren Behatokiko Zuzendaria.
- 10:10 - 10:55.** "Ahozko ondarea hezkuntzara bideratzen".
Idoia Etxeberria. Badihardugu Euskara Elkarte.
- 11:00 - 11:45.** "'GU' definizioen eta ekintzen kontua da".
Petra Elser. Banaiz Bagara Elkarteko Zuzendaria.
- 11:45 - 12:10.** "Salto! Gazteen erabilera aisialdian"
Jokin Uranga. UEMA.
- 12:15 - 12:35.** ATSEDENALDIA.
- 12:35 - 12:40.** ARGAZKIA.
- 12:45 - 13:10.** "EuskarAbentura: Bizipenetatik eraldatzen".
Imanol Zabaleta eta Irati Labaien. EuskarAbentura elkarteko kideak.
- 13:15 - 13:35.** "Enigma bizia: turismotik euskara transmititzen".
Josune Herrarte eta Esti Irureta. Zumaiako euskara teknikaria eta turismo teknikaria.
- 13:40 - 14:20.** MAHAINGURUA: Jokin Uranga, Petra Elser, Idoia Etxeberria.
Dinamizatzaile: **JAIME ALTUNA.**
- 14:30.** AGURRA.
- 14:35.** BAZKARIA.

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EGUNEKO BIDEOA ETA ARGAZKIAK GURE MEDIATEKAN
IKUSGAI: etakitto.eus

IKASLEEN IDEIEN AZOKA

Untzagak VIII. Ikasapresa azoka hartu zuen joan den asteko eguenean, eta Euskal Autonomi Elkarteke Lanbide Heziketako 81 zentrotatik etorritako 2.000 ikasle inguruk 376 negozio-ideia erakutsi zituzten bertan. Proiektu mekanikoak, jolasak, jakiak, elektronika, estetika... mota askotako egitasmoak aurkeztu zituzten Untzaga eta Txantxa Zelai artean kokatutako hiru karpatan. Eguraldia lagun, herri-ugarri bildu zen ikasleen proposamenak ezagutzera.

Ikasgeletan eskola-enpresak sortzearen inguruan garatzen den hezkuntza-programa da Ikasapresa. Enpresaren mundua ikasgeletara hurbiltzea eta gaitasun ekin-tzaileen garapena sustatzea da proiektuaren helburua, eta beste kultura eta gizarte-errealitate batzuetara hurbildu nahi dituzten ikasleak, ikastetxeen arteko elkarlana sustatuz. Horretarako, ikasleek enpresa txiki bat sortzen dute ikasgelan eta enpresaren jarduerak guztiak egiten dituzte. Produktu errealak sortzen dituzte, euren egindakoak edo merkaturatutakoak.

argazkiak:
Ekhi Belar





JOSEBA BARRUTIA: Celtas Cortos eta Eibarko jokalaririk batzuk Untzagan, 2015-16 denboraldiko azken partidua Ipuruan jokatu ondoren (2016-V-8).

Gara egunkariak 20 urte bete zituen urtarrilaren 30ean, baina erredakzioan ez zegoen ospakizunetarako gogo handirik. Egin egunkariak Gizarte Segurantzarekin zuen zorra Garak ordaindu behar du Baltasar Garzon epailearen erabakiz eta Iñaki Soto zuzendariak Gizarte Segurantzarekin lortutako akordioaren berri eman zuen urteurren egunean. Datozen urteetan, sei hilabetero, milioi erdi euro ordaindu beharko dituzte 3 milioi ordaindu arte. Iñaki Iriondo Garako Eibarko kazetariak egunkariaren asmoak zeintzuk diren azaldu dizkigu.



Txori Negre

IÑAKI IRIONDO (Garako kazetaria):

“Ideologia ezberdineko prentsa egon beharko litzateke”

- Nola egingo diozue aurre egoerari?

Euskal Herriko gizartearen eta gure komunitatearen inplikazioa eskatuz. Harpidetza-kanpaina jarri dugu martxan. 10.000 harpide lortu behar ditugu ekainaren 19rako eta bi urterako harpidetzak izan beharko dira. Hala ere, beste bide batzuk ere zabaldu ditugu. Azken egunetan ikusi da Garako azken orrialdean publizitate-solidarioa agertzen dela eta, bestetik, erakundeen babesa ere eskatu dugu. Prentsa mundua krisi edo birmoldaketa batean dago gaur egun eta erakundeek zerbait egin dezaketela uste dugu; ez laguntza zuzenak emanez, baizik eta prentsa mundua nola dagoen ikusiz eta zer egin dezaketen pentsatuz. Ideologia ezberdineko prentsa egon beharko litzateke.

- Erakundeen eta gizartearen babesa jaso duzue akordioaren berri eman ondoren?

Gizartearen babesa bai, 1.000 harpidetza lortu ditugu; erakundeekin berbetan dihardugu, baita aurretik ere; martxoaren 2an Donostiako Kurasaalean bilera egiteko deialdia zabaldu da; eta orain arte harpidedunak izan direnei laguntza eskatu zaie boluntario bezala lan egiteko beste harpidetza batzuk jasotzen. Jende asko dabil laguntzeko zer egin dezaketen galdetuz.

- Nolakoak izan dira Gizarte Seguran-

tzarekin izan dituzuen negoziaketak? Nolako prozesua izan da?

Egin itxi zutenean egunkaria Gizarte Segurantzarekin zeukan zorra negoziatzen zebilen. Zorra enpresa aldetik egon da, langileen aldea ordainduta egon da beti. Egin itxi ondoren Garzonek zor hori Garari leporatzea erabaki zuen, ‘ondorengotza ideologikoa’ zegoela argudiatuz. Enpresa batek zorrak baditu, enpresa itxi eta beste toki batean beste izen batekin berriz zabalitzen bada, zor hori mantendu egingo zaio. Gure kasuan, ez da horrela izan. Egin itxi egin zuten eta gero jakin zen legez kontra itxi zutela; Gara ez zen diru berdinarekin sortu, jendearen ekarpenetik irten zelako egunkari berria egiteko dirua; ez zeuden enpresa ezta akzionista berberak egitasmoaren atzetik; eta Gizarte Segurantzako teknikoek ere horrela zela zioten. Garzon epailea Auzitegi Nazionaleko epailea zen, ez zuen epaitegi sozial edo lan-epaitegiekin zerikusirik, baina auto bat egin zuen Gizarte Segurantzak zorra Gara-

“Garak aurrera egin nahi du, baina zorra kitatu behar dugu eta ez da erraza izango”

ri eskatzeko. Hamabost egunetan ordaintzeko epea eman ziguten, bestela egunkaria itxi egingo zutelako, eta enpresak ordainketa-etendura egitea erabaki zuen. Horrela jarraitu dugu hamabost urte. Klip bat erosteko ere administrazio judizialaren firma behar izan dugu; ezin izan dugu laguntzarik jaso; eta langile bat haundun geratzen bazen, ezin izan genuen bere postua bete, adibidez. Azkenean, epaile aldatuta ezin duela esan du. Beraz, Gizarte Segurantzarekin akordio batera iritsi gara eta, ondorioz, sei hilabetean behin milioi erdi euro ordaindu beharko ditugu.

- Zein sentsazio geratu zaizue akordioarekin?

Aurrera egiteko bidea lortu dugu akordioarekin.

- Proiektu honekiko edo kazetaritza deseroso baten aurkako jazarpen estratejia dagoela esango zenuke?

Argi dago. Egin itxi zutenean ikusi zen legez kontrakoa zela, baina aurretik ere gure atzetik zebiltzan. Guri zorra leporatu eta denbora gutxira Egunkaria itxi zuten. Hor ikusten da zein zen bidea.

- Proiektua arriskuan dago?

Bai, noski. Aurrera egin nahi dugu, baina zorra kitatu behar dugu eta ez da erraza izango.



TXIKI AGIRRE
"KEIXETA" (artista)

"Aspergarria da oso konkretua izatea, nahiago dut irekia izan"

Txiki Agirre 'Keixetak' azken hiru urteetako lanak batu ditu Portaleko erakusketa-aretoan. Sortze-prozesuan bide ezberdinak hartu zituzten lanek koherentzia lortu dute Portaleko "areto berezian", eta Arroako margolari eta eskultorea pozik geratu da emaitzarekin. Keixetak esperimentatzea du gustoko eta gauza berriak probatze horrek ematen die ukitu pertsonala bere lanei.

- 'Dikotomia' izenburua dauka erakusketak. Zergatik?

Normalean ez naiz izaten izenburu jartzailea. Izenburu bat argi eta garbi jartzen baduzu, jendea bideratu egiten duzu. Erakusketa honetan bi bide hartu ditut, zeramika eta pintura, eta horregatik deitu diot 'Dikotomia'.

- Bide bi horiek erakusketan elkartu dira?

Ade batetik zeramika landu dut eta beste alde batetik pintura. Zeramika egiten badut, ezin dut pintura egin. Sortze-prozesuan arlo biek ez dute zerikusirik eduki euren artean, baina erakusketa antolatzerakoan ohartu naiz lotura handia dutela eta lagungarriak direla. Bi arloak hobeto adierazten dira elkarrekin bakarka baino.

- Nolako mundua aurkituko dugu erakusketa-aretoan atetik sartzean?

Sarrera aurrean kupula ikusiko dugu. Zabaltasuna dauka eta erakusketaren laburpena ikus daiteke bertan: azken urteotan egin ditudan koadro abstraktuak, Alkizako basoaren irudikapena eta gatazka belikoen (AEB-en bonbardaketak Sirian) irudikapena. Bestetik, erretratoak, nire inguruarekin zerikusia duen pintura-abstraktua eta gatazka belikoak irudikatu ditut (bonbardaketak, errefuxiatuen egoera...) pinturari dagokionez; eta eskulturekin pertsonen buruak, erortzen ari diren bonbak eta bestelako elementuak, eta Alkizako basoa moldatu ditut.

- Nola bizi izan ohi duzu erakusketa egiteko momentua?

Portaleko erakusketa-aretoa oso berezia da. Azken hiru urteetan egindako lana aurkezten dut eta urte hauetan aldaketa handiak egon dira lanean, baina toki berezia denez leku ezberdinetan obra aurkezteko tokia uzten du koherentzia manten-

duz. Erakusketa-aretoaren punta batetik bestera obra independentea da akaso, baina osotasunean koherentzia dauka. Ni naiz erakusketaz gozatzen duen lehena. Obra sortze-prozesuan dagoenean egileek dute lanaren jabetza, baina obra amaitu eta erakusten denean egileak jabetza galdu eta ikusle bakoitzak hartzen du jabetza hori. Ikusle bakoitzak bere interpretazioa ematen dio.

- Erakusketa batean lanak azaldu behar direla uste duzu ala ikusleen interpretazio kontua izan behar da?

Kasu ezberdinak daude. Hasieran ez zait gustatzen erakusketan egotea, ikusleak bideratzea. Lehenengo sentsazioak bistari jo behar dio, eta hori bihotzarekin lotu behar da buruarekin harremana sortzeko. Ez zait informazioa ematea gustatzen, harremana zuzena izan behar da. Obrek atentzioa eman behar dute. Denbora asko behar dut lan bat egiteko eta ikusleak ere denbora behar du obrari etekina ateratzeko. Gainera, etekina ezberdina izan behar da ikusle batengan edo bestearengan. Niretzat aspergarria da oso konkretua izatea, nahiago dut irekia izan. Bestetik, badaude hilda dauden artelanak, bizitzeko testua behar dutenak.



Concha Velascoren hitzaldiarekin hasiko dira Antzerki Jardunaldiak

Martitzenean abiatuko da 42. Antzerki Jardunaldietako egitaraua, Concha Velasco antzezle ezagunak emango duen "La interprete y el productor" izenburuko hitzaldiarekin. Arratsaldeko 19:00etan Coliseoan hasiko den hitzaldi-solasaldia koordinatzen Jesus Cimarrok jardungo du eta aurkezlea, berriz, Juan Ortega izango da. Ekitaldirako sarrera doan izango da. Antzerki emankizunak, berriz, biharamonean hasiko dira: eguazten eta eguenean "El funeral" taularatuko dute Coliseoan, 20:30ean. Pentacion Espectaculos konpainiaren lan honetan parte hartzen duten antzezleak Concha Velasco, Jordi Rebellon, Claro Alvarado,



Cristina Abad eta Emmanuel Medina dira eta sarrerak 15 euro balio du (10'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Eta bari-xakuan, 17:00etatik aurrera, 17. Giza Irudien erakustaldia hartuko dute Untzagak eta Toribio Etxebarria kaleak.



Eguen Zurian hasiko gara Aratosteetan murgiltzen

Datorren asteen sartuko gara Aratosteetan bete-betean, Eguen Zurian. Bazkalostean, 15:15ak aldera hasiko dira herriko ikastetxeen kalejirak. Arratsaldeko 17:00etan, berriz, Jainagak eta Narbaizak girotutako kalejira abiatuko da Urkizutik, Untzagaraino. Eta Untzagan ordu berean hasiko dira Lisker taldearen dantzaldia eta Astixaren eskutik egingo diren tailerrak.



Berbalagunak patinatzen ibili dira Txuri Urdinen

Aurreko zapatuan berbalagunetz beteta abiatu zen Eibartik autobusa Donostiako Txuri Urdin izotz-pistara. Heldu zein ume, batzuk trebeago, traketsago beste batzuk baina pozarren ibili ziren, patinatzen, lagunartean eta euskeraz berbetan. Gurasoak Berbetan eta Ongi Etorriko gurasoak eta horien seme-alabek hartu zuten parte irteeran. Talde desberdinetako kideak elkar ezagutu eta elkarren berri izateko aprobetxatu zuten eguna.

Koko-jantziak prestatzen Barixakuak Jolasian

Aurreko barixakuan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Gurasoak Berbetan programaren barruan, mozzorro-tailerrean jardun zuten ume eta gurasoek. Oso material gutxirekin eta oso modu errazean, lau mozzorro egiteko aukera izan zuten: Peter Pan, sorgina, aztia eta elurreko panpina.

Barixakuak Jolasian ekimena hilean behin antolatzen du ...eta kitto!-k, Berbetan programan izena emanda duten gurasoentzat. Hurrengo martxoan izango da, eta Korrikaren atarian egongo garenez, petoak eta buruan jarzeko zintak egingo dituzte.



Zapatuko ipuina

Bihar arratsaldean, 18:00etan, Zapatuko Ipuina egitasmoaren barruan "Bazinen behin zu" ipuin-kontakizuna eskainiko du Oihana Etxegibel Alberdik umeen liburutegian. Saioa 4-9 urte bitarteko umeentzako pentsatuta dago eta sarrera doan izango da.



"Buru argiak" ikastaroa

Untzagako jubilatutako etxekoek "Buru argiak" ikastaroa antolatu dute, ariketa fisikoak eta mentalkonbinatuz burmuinari osasuntsu eusten laguntzeko. Martxoko barixakuetan izango dira saioak, 16:00etatik 17:30era jubilatutako etxean bertan. Klaseak Adindu-ko Elena Iraolagoitiak emango ditu eta kurtsoak 10 euro balio du. Izena emateko zentruko bulegora joan behar da.

Herriko ondare soziokulturala gordetzeko proiektua aurkeztu dute

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak, Koldo Mitxelena Kulturuneak, Eibarko Kultura Sailak eta Ego Ibarra komisioak Kultur Memoriak proiektua aurkeztu zuten aurreko barixakuan udaletxean. Eibarko memoria eta ondare soziokulturalaren mapatze parte-hartzailea eta eduki sorkuntza sustatzeko proiektua da, eta martxo eta apirilaren artean gauzatuko da. Narratiba herrikoa sortzea da helburua, eta baita Eibarren egon diren aldaketa sozial eta kulturalak lantzea ere.

Herritarrek eta herriko memoriaren inguruan lan egiten dutenek osatutako taldea egingo da mapatzea lantzeko, eta info@kulturmemoriak.eus helbidera idatzita edo 622 82 51 13 telefonora deituta eman daiteke izena dagoeneko (20-25 lagunek hartu ahal izango dute parte eta 15 egun barru itxiko da epea). Taldea osatu ondoren parte-hartzaileek trebatze tailerrak jasoko dituzte, herriko aktiboen identifikazioa eta mapatze analogikoa egiteko. Ondoren, narratiba digitalen sorkuntza egingo da, hau



Proiektua datozen bi hilabeteotan gauzatuko da.

da, aurretik landutakoa bideo, audio edo bestelako euskarrietan lantzea. Gero jasotako narratiba horren post-produkzioa egiteko txanda iritsiko da. Eta azkenik, proiektuaren ebaluazioa eta itzulera egingo da. Egindako lan guztiak webgune batean jasotzea aurrei-

kusten dute proiektuaren arduradunek eta, honen bitartez, Eibarko mapa batean proiektu honek jasotakoak biltzen dituzten puntuak aurkitu ahal izango dira. Arduradunek adierazi dutenez lanaren emaitza uda aldean aurkeztea espero dute.

"Emariak" liburua aurkeztuko dute 26an Arrate Kultur Elkartean

Datorren martitzenean zabalduko dute Topalekuan "Emariak, emakumeek historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma" izenburuko liburuari lotuta prestatu duten erakuske-




ta. Martxoaren 8ra arte egongo da ikustera joateko aukera, ohiko ordutegian. Bestalde, erakusketa zabaltzarekin batera, liburuaren aurkezpena egingo dute Ilazki Gainza eta Nerea Uriaga egileek martitzenean bertan, 19:00etatik aurrera elkartearen lokaletan. Kalaka komunikazio taldeko bi kideek emakumeek historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma osatu dute: datorren astean aurkeztuko duten liburuan 12 emakumeren biografia laburrak bildu eta ilustrazio bidez lagundu dituzte. Emakume horietatik 2 euskaldunak dira eta, gainontzekoak, nazioartekoak. Egileen berbetan, "liburuaren helburua emakume erreferenteen berri ematea da, gizonezkoen berri badugulako, baina, emakumeena, aldiz, ez. Gainera, bilduma euskaraz izatea garrantzitsua iruditu zaigu, ez baitaude halako baliabideak euskaraz. Eta, horrekin batera, emakume ezezagunak biltzen saiatu gara, ezagunen berri beste iturrietatik ere badakigulako".

Eibarko raketista bat protagonista duen liburua kaleratu du Elene Lizarralde

Aurreko asteko eguenean aurkeztu zuen Elene Lizarralde Donostian "El silencio de Clara Lyndon" bere lehen eleberria. Sasoi bateko frontoietako emakumeak dira eleberraren protagonistak, Eibar, Bath eta Madril lotzen dituen trama baten barruan. Egilea Agustina Elorza, Lucia Areitioaurtena eta Con-

cepcion Arizmendiarieta raketisten eskutik jaso ditu euren esperientzia Madrilgo eta Bartzelonako frontoietan eta hortik tiraka osatu du fikzioa. Lizarralde ETBko lehen aurpegia izan zen 1982an eta gero Antena 3ra joan zen haurrentzako programak egitera. Horrez gain, hainbat pelikuletan hartu izan du parte.





Inauterietako dantzak ELGETAKO Espaloian

Aratoste sasoiaren gaudela eta, dantzariren batzuk eskatuta, berriz egingo dute Inauterietako dantzen saio berezia Elgetako Espaloian kafe antzokian, Herrixa Dantzan egitasmoaren baitan antolatu duten saioan. Domekan egingo dute, 19:00etan, eta sarrera doan izango da. Beste batzuetan bezala, edatekoak eta jatekoak eskura ipiniko dituzte egun horretarako.



Bi bisita gidatu biharko MUTRIKUN

Goizeko 11:00etan Karsteko Zaporeak bisita gidatua izango da Olatz bailaratik barrena, euskaraz. Besteak beste, bertako geologia, abeltzaintza eta gaztagintza urretik ikus ahal izango dute bertaratzen direnek: bertako kobak ez ezik, zezenak eta Goienetxe gaztandegia bisitatuko dute-eta. Erreserbak www.geoparkea.eus web orrian egin daitezke. Bestalde, 11:30ean, Olatu plantaren bisita gidatua izango da, hori gazteleraz. Bisita horretarako 943 603 378 telefono zenbakian eman behar da izena edo korreoa bidali_turismo@mutriku.net helbidera.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Eduardo De Dios Otero. 65 urte. 2019-II-14.
- Mertxe Basurto Zuazabeitia. 73 urte. 2019-II-14.
- Andres Mujika Etxabe. 71 urte. 2019-II-14.
- M^a Luisa Elola Garate. 88 urte. 2019-II-15.
- Xabier Aldabe Azkargorta. 77 urte. 2019-II-15.
- Angel Santos Taborga. 87 urte. 2019-II-15.
- Pedro Val Val. 93 urte. 2019-II-15.
- Juana Urbieta Egia. 96 urte. 2019-II-16.
- Isabel Perales Garcia. 87 urte. 2019-II-16.
- Jose Luis Muro Ramirez. 74 urte. 2019-II-16.
- Julian Abio Garcia. 88 urte. 2019-II-17.
- Dionisio Cepeda Garcia. 69 urte. 2019-II-17.
- Jose Herrero Morla. 87 urte. 2019-II-19.
- Elias Egaña Gisasola. 98 urte. 2019-II-19.

jaiotakoak

- Paule Diaz de Corcuera Arrillaga. 2019-II-11.
- Alex Guruzeta Polo. 2019-II-15.

farmaziak

- Barixakua 22
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 23
 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Domeka 24
 EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Astelehena 25
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Martitzena 26
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 27
 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Eguena 28
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Barixakua 1
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

4	7	1	6	5	2	3	8	9
6	8	9	1	4	3	7	5	2
5	3	2	8	9	7	1	6	4
1	4	8	9	7	5	6	2	3
9	5	3	2	1	6	4	7	8
2	6	7	1	8	4	9	1	5
7	9	4	5	6	8	2	3	1
3	1	5	7	2	9	8	4	6
8	2	6	4	3	1	5	9	7

6		5						1
	4		2	6				
3	9			4	5			
						8		
5		6	8		9	3		2
		9						
			6	2			8	5
				7	1		2	
2						1		4

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitela.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Txiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 22

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzate-ariaketak. Portalean.

11:00. Jardiñetan. San Andres egoitzan.

NEGUKO MERKEALDIAK

10:00/20:00. Eibarko neguko merkealdien azoka.

18:00/20:00. Kale-animazioa: Afro Sound System eta buruhandiak. Toribio Etxebarria kalean.

KALEJIRA

19:00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren irteera. Untzagatik abiatuta.

Zapatua 23

KOKO-DANTZAK

08:30. Merkatu plazan lehen agerraldia.

09:00/15:00. Koko-dantzak eta koko-eskea Otaola-Kiñarraga auzoko baserrietan.

19:00/21:00. Anbulatorioan batu eta Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga, Calbeton eta Plaza Barrian koko-dantzak eskainiko dituzte, Mauxitxa txarangak lagunduta.

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

MAGIA

17:00. "Liluraren laborategia" (Kultura Magic-Sun Magoa) ikuskizuna. 5 euro. Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

18:00. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta guraso-entzat. Ipurua kiroldegian.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Bazinen behin zu" ipuin-kontalari saioa, Oihana Etxegibelen eskutik. Umeen Liburutegian.

ESKULAN TAILERRA

18:00. Aratosteen inguruko eskulan tailerra, umeentzat. Izen-ematea: Liburu sailean. Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

MAGIA

20:30. "Spectacular Magic" (Sun Magoa) ikuskizuna. 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.



MUSIKA

23:30. "Sara Zozaya" taldearen kontzertua. Ez Dok tabernan.

Domeka 24

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

Astlehena 25

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzate ariaketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatu eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 26

IKASTEN

10:00. "Soroazabal, musikagile madarikatua" hitzaldia, Jose Francisco Gutierrezen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

18:30. Munduko janarien tailerra, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Portalean (sukaldean).

AURKEZPENA

19:00. "Emariak", emakumeek historian zehar egin dituzten ekarpenen bildumaren aurkezpena, Ilazki Gainza eta Nerea Uriaren eskutik. Arrate Kultur Elkartean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00. "La interprete y el productor" hitzaldia, Concha Velascoren eskutik. Doan. Coliseoan.



Eguaztena 27

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "El funeral" (Pentacion Espectaculos). 15 euro (10'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Eguena 28

IKASTEN

10:00. Arte Ederretako Museora bisita.

EGUEN ZURI

15:15. Eskoletako taldeen kalejirak.

17:00. Urkizun hasita eta Untzagaraino, Jainaga eta Narbaizarekin kalejira.

17:00. Untzagan, dantzaldia, Lisker taldearekin.

17:00/19:00. Untzagan, tailerrak: "Zirkoa" kareta eta makillajea, Astixaren eskutik.



KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteranoen entsegua 18:00etan hasiko da).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:30. Odola-emateko saioa, odol-emateentzat. Anbulatorioan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "El funeral" (Pentacion Espectaculos). 15 euro (10'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Erakusketak

Otsailaren 28ra arte:

- DANIEL ARANBURUREN "DE TODO UN POCO" ARGAZKIAK (El Ambigü taberna)
- F11 TALDEAREN ARGAZKIAK (Depor taberna)
- KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN ARGAZKIAK (Portalea jatetxea)

Martxoaren 3ra arte:

- "DIKOTOMIA" KEIXETAREN PINTURA ETA ZERAMIKA (Portalea)

Martxoaren 31ra arte:

- "EIBARKO BELOMOTORRAK" (Eibarko Armagintzaren Museoa)

Otsailaren 26tik martxoaren 8ra arte:

- "EMARIAK", EMAKUMEEK HISTORIAN ZEHAR EGIN DITUZTEN EKARPENEN BILDUMA (Topaleku)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, UMA, astelehenian urtiak egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON!, haraiñegun 7 urte bete zenduaz-en-eta! Patxo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Malenen partez!



Zorionak, MAIALEN, hillaren 27xan 14 urte beteko dozuzelako. Ondo ospatu eguna! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ALBA Cid, otsaillaren 29xan 3 urte egingo dozuz-eta. Musu bat guraso, aitxita-amama eta osaba-izekuen partez.



Zorionak, XABAT, astelehenian urtetxua beteko dozulako. Ondo-ondo pasa eguna! Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UNAI, hillaren 26xan 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak, BEÑAT, zure 6. urtebetetzian. Etxeko guztien partez, bihotz-bihotzez.



Zorionak, SUHAR!, hillaren 16xan 3 urte bete zenduazelako. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Xareren partez.



Zorionak, ODILE!!, eguaztenian 7 urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partetik!



Zorionak, XABI, gaur 2 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Iraiaren partez!!!



Zorionak, IÑAKI, gaur 6 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, OIHAN, Artetxe, hillaren 20xan 3 urte haundi egin zenduaz-en-eta. Patxua famelixaren eta, batez be, Iker-en partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

23an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

24an: 17:00, 20:00^(Antzokia)

25ean: 20:30^(Antzokia)

"Perdiendo el Este"

Zuzendaria: Paco Caballero

(1 ARETOAN)

24an: 20:00

25ean: 20:30

"La clase de piano"

Zuzendaria: Ludovic Bernard

(2 ARETOAN)

23an: 22:30

24an: 17:00, 20:00

25ean: 20:30

"La escuela de la vida"

Zuzendaria: Nicolas Vanier

(ANTZOKIAN)

23an: 17:00^(1 Aretoa)

24an: 17:00

"Familia al instante"

Zuzendaria: Sean Anders



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisu merkea salgai Santo Domingo de la Calzada erdigunean. Bista ederrak. Kontopontzeko. Tel. 675-803734.
- Pisu salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
- Pisu salgai Barrera kalean, Mutualia parean. 2 logela. Guztia kanpora begira, balkoiarekin. Berritua eta guztiz jantzia. Kalefakzioarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 135.000 euro. Garaje itxia aukeran (15.000 euro). Tel. 679-867543 eta 660-805301.

1.2. Errentan

- Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 612-201719.
- Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. Tel. 627-820417. Dolores.
- Eibarren logela bat hartuko nuke alokairuan. Tel. 612-450354.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Ipuruako dorreetan. Auto handi baterako. Prezio onean. Tel. 943-700173 eta 608-464144.
- Gazteendako lokala alokagai Jardifieta kalean. 132 m². Legeztatua eta argitsua. Tel. 656-756485.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 675-617892.
- Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Tel. 612-201719.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 612-463096.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-470506.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 678-112785.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-094780.
- Gizona eskaintzen da garbiketarako eta eraikuntzan edo pintura lanetan jarduteko. Tel. 603-209416.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-258718.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-921780.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 644-558390.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-063561.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-881161.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 660-140707.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Esperientzia. Orduka. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-405039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-406981.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-501003.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-405748.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-115646.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-272926.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 642-609678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-134601.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 666-199007.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 693-673904.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 663-535925.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 698-733356.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-133720. Indhira.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-995976.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-452026.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-215212.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-265561.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, pegorak garbitzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 643-158904.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-259243.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-375766.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 675-965130.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 605-598999.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 674-579736.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 677-768682.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 612-539941.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez eta asteburuetan ere. Tel. 617-896989.
- Eibarko 18 urteko neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Euskara goi maila eta ingeles ertaina. Tel. 666-843393.
- Emakumea eskaintzen da pisuak edo pegorak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 698-406654.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Esperientzia eta formakuntzarekin. Tel. 660-511781. Elena.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Formakuntza sozio-sanitarioa eta esperientzia. Tel. 671-989434.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 636-517025.

4.2. Langile bila

- Saltzailea behar da arratsaldean (lanaldi erdian) lan egiteko. Bidali curriculum-a: raulcloset@yahoo.com edo Closet dendara (Estazio, 10).
- Kamarera/o behar da Eibarren asteburuetan lan egiteko. Bidali curriculum-a: tre@euskalnet.net
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 622-142679.
- Langilea behar da Eibarko No+Vello estetikazentroan. Estetizista-itulua, laser depilazioan edo IPL-an esperientzia, merkatal dohaia eta euskara maila baloratuko dira. Bidali curriculum-a: eibaregogain@nomasvello.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- DBH 4ko ikasleak laguntza-klaseak behar ditu hizkuntza- eta irakur-gaietarako. Tel. 652-712639.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.2. Eman

- Artzai txakurkumeak oparitzen dira, ondo zaintzeko. Tel. 695-716229 eta 943-203205.

Hyundai IONIQ Gama

Autoz mugitzen uzten ez dutenerako



Ahaztu itzazu hiri handietako kutsadura-protokoloak IONIQ-ekin. Beste inork egin ezin duena egingo duzu zuk: hiri-erdigunetik nola mugitu aukeraturako duzu, **Hyundai IONIQ Gama** delako hiru teknologia eskaintzen dizkizun bakarra: hibridoa, elektrikoa eta hibrido-entxufagarria. ECO bereizgarriarekin **Hyundai IONIQ hibridoa** duzu. Gidatze ekonomikoaz gozatuko duzu, eta emisio baxuekin. Zero emisio bereizgarriarekin **Hyundai IONIQ hibrido-entxufagarria** duzu, kotxe hibridoaren eta elektrikoaren onena batzen duena. Edo, nahiago izanez gero, **Hyundai IONIQ elektrikoa** ere baduzu; emisiorik gabeko gidatzea eta 280 kilometroko autonomiarekin.

Hyundai IONIQ Gama 20.990€-tik aurrera
3.000€-ra arteko diru-laguntzak kudeatzen ditugu Eusko Jaurlaritzaren Renove Planarekin

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARRAKO
WWW.OARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

HYUNDAI

8 URTE / 200.000 KM
GARANTIA DE BATERIA

5 URTE
BERMEA MUGARIK GABE

Hyundai Ioniq Gama HEV: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 103-106. Kontsumo konbinatua (l/100km): 4,5-4,7. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO2 emisioak (gr/km): 84-85 NEDC korrelatu zikloaren arabera lortutakoak. Hyundai Ioniq EV Gama: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 0 erabileran. Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 115. Autonomia: 280 Km*. Hyundai Ioniq PHEV: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 26 erabileran.

Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 117. Kontsumo konbinatua (Wh/km): 1,1. Autonomia modu elektrikoan: 63 Km*

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balaiaetan Ioniq 1.6 GDI 103,8kW (141CV) DT KLASA (20.990€) modeloarentzat. BEZ, garrasia, merkaturazio-zerga, sustapen-deskottua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldaketa Plana aplikatu daitezke. Hyundai berri bat erosi baino 6 hilabete lehenago gutxienez, eroslearen titulartasunpean erabiltako auto baten truke. Eskaintza hau aplikagarria da Hyundai MOVE produktuekin finantzatzen diren bezero partikularentzat, Banco Cetelem, S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin. Finantziario finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Finantziarioari lortutako gastuak (Komisioak, Interesak edo Aseguru Programak) ez daude barne; horiek www.hyundai.es/configurador web-ean kontsultatu daitezke. 22.390€ finantzatuko ez duten bezeroentzat PSP gomendagarria. Eskaintza 2019/02/28ra arte da baliozkoa. Ikusten diren modelok: IONIQ Style hibridoa, IONIQ Style hibrido-entxufagarria eta IONIQ Style elektrikoa. Mantenimendua autoren finantziarioari lotuta. Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien kilometraje-mugari gabeko 5 urteko eta tentsio altuko bateriantzat 8 urteko edo 200.000 km-ko (beheago gertatzen dena) berme komertziala Hyundai sare ofizialean salduerako ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaporteeen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es helbidean (*Autonomia ofiziala WLTP Gidatze Ziklo Berriaren arabera. Egiazko autonomia gidatze-estiloak, egoera klimatikoak, errepidearen egoerak eta aire girotuaren edo berogailuaren erabilerak baldintzatuko dute). Kontsultatu Eusko Jaurlaritzaren Renove Planaren baldintzak hemen: www.eve.eus.



OINETAKO ETA JANTZI GUZTIAK

2.UNITATEA

1€

***SOILIK OTSAILAREN 20tik 28ra**

*Bi ale erosit gero, eraman zenbateko txikiagokoa 1€-en truke soilik. Euroa zenbateko handiagokoaren jatorrizko salmenta-prezioari gehituko zaio. Promozioak ehun-ataleko artikulu eta oinetako guztietarako balio du, berritasunetarako eta eski-ataleko artikuletarako izan ezik.

F. Calbetón, 15
943 20 19 42
www.askasibar.net

ASKASIBAR  **INTERSPORT**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, N° 12 - 1° - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com